

**PROGRAMA-AKORDIOA
BIZIKIDETZAZKO ETA
BERDINTASUNEZKO
LEGEGINTZALDI BERRITZAILE
ETA AURRERAKOIRAKO**

2019-2023



Ahal Dugu NAVARRA
PODEMOS.

izquierda
ezkerra



AURKIBIDEA

1.- HITZAURREA

2.- 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO EKINBIDE POLITIKOAREN HAMAR ARDATZ

3.- PROGRAMAREN GUTXIENeko EDUKIAK

3.1.- Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna

3.2. – Berdintasuna, inklusioa eta aniztasuna

3.3.-Ongizatearen Nafarroa soziala

3.4.- Kultura eta kirola

3.5.- Enplegua eta aurrerabide ekonomikoa

3.6.- Jasangarritasuna, ingurumena eta ekonomia berdea

3.7.- Ogasuna, baliabide publikoak eta fiskalitatea

3.8.- Hizkuntza-politika

3.9.- Berrosatzea eta demokraziaren kalitatea

3.10.- Funtzio publikoa, justizia eta barne-gaiak

3.11.- Oroimena, bakea, bizikidetzeta eta Giza Eskubideak

3.12.- Lurralde-kohesioa eta tokiko administrazioa

3.13.- Nafarroa, haren autogobernua eta erakundeen arteko lankidetzeta

4.- KOORDINAZIO-, GARAPEN- ETA JARRAITZE-MEKANISMOAK

4.1.- Jarrantze-organoak

4.2.- Parlamentuaren Koordinaziorako Arauak

4.3.- Amaierako konpromisoa

ERANSKINA.- ELKARREKIN ADOSTUTAKODESAKORDIOAK ETA AZTERTZEKE DAUDEN
GAIAK

**PROGRAMA-AKORDIOA BIZIKIDETZAZKO ETA BERDINTASUNEZKO
LEGEINTZALDI BERRITZAILE ETA AURRERAKOIRAKO
2019-2023**

1.- HITZAURREA

Nafarroako Foru Komunitatearen helburu nagusiak, 2019-2023 legegintzaldian, aurrerabide ekonomiko eta sozialaren ildoari jarraitzea, desberdintasunen aurka borrokatzea, erakundeen arteko leialtasunaren barruan bere autogobernuaren defentsa eta hobekuntza, aukera-berdintasuna eta nafar gizartearen pluraltasunaren bizikidetzak dira. Horiek izanen dira ekinbide legegilearen eta gobernuaren ardatz nagusiak.

Iragan maiatzaren 26ko hauteskondeek utzitako agertokiaren ezaugarriak dira pluraltasuna, Foru Komunitatearen autogobernuaren defentsa eta garapena, aurrerabidearen aldeko gehiengo soziala, aniztasunaren barruan bizikidetzaren aldeko apustua, eta elkarrizketa eta akordioa bilatzea aurrerabiderako, berrikuntzarako eta erreformarako tresna gisa.

Nafarroako Foru Komunitateak Espainia osoarenak eta Europarenak ere badiren erronkak ditu: ekonomia berritzaile eta lehiakorra lortzeko apustua; munduari begira dagoen gizarte zabal eta solidarioa, nazioarteko konpromisoekin arduraz jokatu duena; ongizate-estatu sendo eta jasangarria; genero- eta aukera-berdintasuna ekintza politiko ororen ardatz transbertsala izatea; eta erakunde publikoek egonkortasuna, ziurtasuna eta konfiantza sortuko duten agertoki politikoak bilatzea.

Testuinguru horretan, PSN-PSOE, Geroa Bai, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra indar politikoek bat egiten dute gure Foru Komunitatean dagoen aurrerabidearen aldeko gehiengo sozialarekin. Hala, konpromisoa hartzen dugu 2019-2023 legegintzaldiaren ekinbide politikorako programa bat eratzeko. Programa horrek erantzun eginen die gure gizarteak dituen erronkei, aurrerapen, berdintasun, askatasun eta justizia sozial handiagoak emateko hari.

Kasu honetan. Nafarroako herritarrek agindua eman diete aurrerapen-alternatiba politiko baten gidari izateko, eta egiteko hori beren gain hartu dute erantzukizun handiz, elkarrizketarako gogoz eta jardunbide politikorako akordioa bilatuz. Jardunbide politiko horrek agenda erabat erreforma-zale eta aurrerakoia garatu beharko du nafar gizartean, bai Gobernutik bai Parlamentutik ere.

2:- 2019-2023 LEGEGINTZALDIKO EGINBIDE POLITIKOAREN HAMAR ARDATZ

Jardunbide politiko exekutibo eta legegile bat proposatzen dugu, honako **hamar ardatzak** izanen dituena:

1. **Pertsonak erdigunean jartzen dituzten politiken lehentasuna.** Politika horiek elkarrekin behar bezala orekatuta egon beharko dute, hazkunde jasangarria eta ingurumenarekin bateragarria eratuko dute, kohesio soziala handituko dute, desberdintasun sozialak murriztuko dituzte, lurralde guztiak garatuko dituzte, kalitatezko enplegua sortzeko balioko duen balio erantsi handiko jarduera ekarriko dute, eta, azken buruan, herritar guztiei bermatuko dizkiete erabateko aukera-berdintasuna eta ongizatea.
2. **Bultzada erabatekoa eta transbertsala Agenda 2030 planari** eta hartan jasotako Garapen Jasangarriko Helburuei. Hura izanen da erakunde guztiak maila gorenean interpelatzen dituen eta gure gizartearen erronka orori erantzun egoki eta koherentea ematen dien marko politikoa.

Klima-aldaketaren aurkako borroka, iraunkortasunaren aldeko apustua eta **2030 agendaren helburuei** erantzuna. Ekonomia zirkularra eta energia-trantsizioa. Klima-aldaketa eta garapen jasangarria.
3. **Bakea, memoria, bizikidetzeta eta indarkeriari zilegitasuna kentzea** sustatu balore modura. Halaber, gure Foru Komunitatean pluraltasuna aldarrikatu maila orotan (soziala, lurraldekoa, nortasunarena, sexuala etab.) aurrerapen-balore gisa.
4. **Politika publiko guztietan genero-berdintasunaren aldeko apustu erabatekoa eta transbertsala,** indarkeria eta jarrera matxista oro ezabatzea, eta pertsona oro integratzea, politika guztien printzipio informatzaile gisa.

5. **XXI. mendeko herritarren eskubide berriak** sustatzea, guztien ongiarekiko ardura partekatuaren kulturarekin batera; sistema demokratikoa areagotzea, hala nola kontrolerako, gardentasunerako eta parte-hartzerako mekanismoak. Berrosatze zeharo demokratikorako agenda bat abiaraztea, gardentasunaren, komunikazioaren eta elkarrekintzaren bidez kaleko errealitatea erakundeetara gerturatzeko helburuz; pribilegioak, eta ekonomia- eta politika-arloen arteko eragin-espazio desegokiak ezabatzea.
6. Erantzuna ematea **eraldatze digitalaren** erronkari, industria-iraultzaren hasieratik indarrean zeuden paradigmen aldaketa disruptibo eta guzti. Berrikuntza ardaztat harturik, digitalizazioari, adimen artifizialari eta 4.0 Industriari erantzutea; hori da Foru Komunitatearen ekoizpen-arloa teknologikoki egokitzeko formularen oinarria, eta abiapuntu horretatik eginen dugu lan, IKT estandar hobereenen abangoardian jartzeko Nafarroa. Estrategia hori sustatuko dute, halaber, hezkuntzak, gizarte-elkartek eta herritarrek oro har.
7. **Apustua erreferentziako zerbitzu publikoen alde**, unibertsaltasun-, kalitate- eta ekitate-printzipioetan, eta baliabide publikoen ahalik eta optimizazio handienerako irizpideetan oinarrituta. Baliabideok jasotzeko erabiliko den fiskalitateak bermatu eginen ditu progresibotasuna, birbanaketa, lehiakortasuna, eta Ongizate Estatua sostengatu ahal izateko behar adina diru-sarrera publiko.
8. **Erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak aktiboaren aldeko apustua**, Foru Komunitatean guztien ongia lortze aldera gizartean ditugun baliabide oro dinamizatzeko faktorea den heinean, Sektore publikoak eta erakundeek Nafarroako aurrerapen-aldi berriaren gidariak eta dinamizatzaileak izan behar dute.
9. Gure erakunde-ereduari errespetua, **eta gure autogobernuaren defentsa eta indartzea, legedia eta erakundeen arteko leialtasuna urratu gabe**; gure eskubide historikoen gaurkotzean aurrera eginez, erantzukizunez eta Estatuko gainerako lurraldeekin elkartzunez eta Europako proiektuan parte hartuz, oraingo eta etorkizuneko erronketarako baliagarriak izanen diren foru- eta udal-erakundeak emanez gure buruei.
10. **Nafarroako errealitate historiko, kultural eta soziala gorde eta babestea**, bertan dauden berezko hizkuntzak barne.

3.- PROGRAMAREN GUTXIENKO EDUKIAK

Hau sinatzen duten alderdiek, bakoitza bere hauteskunde-programatik abiatu eta programa horien arteko kontsentsua lortzeko borondatez, gutxieneko edukitzat onartzen dute ondoko programa-blokea, zeinak garatu egiten baitituen akordio honetan adostutako ekinbide politikorako ardatzak.

Programa-bloke honen zerrenda zabaldu edota aldatu egin liteke etorkizunean, sinatzaileek elkarrekin hala adosturik gerta litekeen jardura politikoaren garapenaren ondorioz, bai Parlamentuan bai Nafarroako Gobernuan.

3.1.- EZAGUTZA, HEZKUNTZA ETA AUKERA-BERDINTASUNA

1. Guztientzako hezkuntzaren kalitatea lortzeko oinarri modura proiektu zabal eta plurala lortu beharra dago, bikaintasunezko eskola publikoaren inguruan ardatzuta. Hori izanen da aukera-berdintasuna eskainiko duen gizarte bidezko eta barneratzailearen oinarria.
2. Hezkuntzaren aldeko Hitzarmen Sozial eta Politikoa bultzatzea. Hezkuntza-sistemak egonkortasun, legegilea eta normatiboa behar du. Gizartea, Nafarroako hezkuntza-komunitateak, hezkuntzako eragileak eta arloarekin zerikusi zuzena duten pertsonak kontuan izatea nahitaezkoa da.

Hitzarmen horren barruan hezkuntza publikoak lehentasunezko profila izan behar luke.

Hezkuntzaren aldeko Hitzarmen Sozial eta Politiko hori Nafarroako Foru Parlamentuan aurkeztu eta eztabaidatuko da,

3. Hezkuntzara bideratutako baliabideak eta bekak gradualki handituko dira, Nafarroa hezkuntza-arloan aurreratuen dauden gure inguruko herrialdeekin parekatzeko (BPGren %5).
4. LOMCE legea errefusatu eta hura ezabatzearen aldeko apustua egin.
5. Eskola publiko laikoa sustatu. LOMCEk baimentzen duen erlijio-ikasgaiaren ordutegirik murriztena ezartzeko erreforma (gaur egungo legediarekin bat egiten duena) onartu. Zain egon erlijioaren irakaskuntza curriculumetik eta eskola-ordutegitik kanpo utz dadin, erlijio-gertaerei buruzko irakaskuntza kulturala sustatuz, barneratzea eta bizikidetzat hartuta, gure kultur ondarearen partetzat hartuz eta fundamentalismoak ekidinez.
6. Eskola publiko lehenetsi hezkuntza-sistemaren bizkarrezur gisa; haren ikastetxe-sarea aski izan dadila auzo eta eskualde bakoitzaren beharrazanez erantzuteko. Hezkuntza-eskaintza publiko eta eskola-unitate publikoen kopurua handitu. Nork bere auzoan ikasteko aukera izatea ahalbidetu. Ituntze-

baldintzak berrikusi, eta bermatu, administrazioaren aldetik, itunpeko ikastetxe orok itunetan ezarritako eginbeharrak betetzen dituztela, funts publikoekin finantzaturako zerbitzu publikoa eskaintzen duten osagarria diren heinean. Horretarako, itunpeko sarearekin indarrean dagoen akordioa bultzatuko da eta haren jarraitzea egingen da, gardentasuna ziurtatzeko bai datuei dagokienez, bai ikastetxe horiek baliabide publikoak erabiltzen dituzten erari dagokionez ere.

7. Ez handitu itunpeko unitateen kopurua, eta hura gutxitu eskaera behar bezain handia ez denean.

Itunak gutxitzeko bideak aztertu eta bultzatu, haien epeak bete ahala.

8. Neurriak sustatu itunak ekiditeko sexuaren arabera ikasleak banatzen dituzten ikastetxeekin, baita ere arrazoi ekonomiko edo ideologikoen, edota sexu-hautuarekin zerikusia dutenen arabera ikasleak hautatzeko ezkutuko mekanismoak darabiltzatenekin. Hartutako konpromisoak betetzen direla kontrolatzeko itunpeko hezkuntzaren kontrol-unitatea sendotuko da.

9. Hezkuntza bateratuaren aldeko apustua egin maila orotan, gizarte ez-sexistarantzko bidean aurrera egiteko helburuz. Nafarroako hezkuntza-sistema osoan berdintasunezko hezkuntza ezartzen jarraitu, funts publikoz finantzaturako ikastetxe orotan Skolae programa aplikatuko dela bermatuz, eta ikastetxe guztietan ziurtatuz emanen direla heziketa afektibo-sexualari, berdintasunari eta indarkeriarik ezari buruzko derrigorrezko edukiak.

NUPen genero-ikasketak sustatu, hala nola berdintasunezko formazio-eskaintza gradu guztietan, ikasketa bakoitzaren ezaugarri bereziak eta beharrianak kontuan izanik. Hezkuntza bateratuaren arloaz formazioa bermatu irakasle izateko aukera ematen duten NUPeko ikasketa orotan, hau da, irakasletza-graduetan eta bigarren mailako hezkuntzan jarduteko unibertsitate-masterrean.

10. Unibertsitatez kanpoko ikasketen oinarriko curriculumean txertatu legediak ezartzen dituen helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideak, heziketa afektibo-sexualaz, berdintasunaz eta indarkeriarik ezaz den bezainbatean.

11. Aniztasunari Arreta emateko Plana garatzea eta betetzea, eskola barneratzaile, ulerkor eta pluralaren barruan, eskola-eragileak kontuan harturik.

12. Funts publikoekin sostengaturako ikastetxe ororen artean ikasleak era orekatuan banatzeko Araudia, Egutegia eta Prozedura, desabantaila sozio-kulturalak edo bazterketa jasaten dituzten ikasleen kontzentrazioa eragozteko eskola publikoan. Baita ere ikasleen edo haien familien beste edozein ezaugarriren ondoriozko kontzentrazioa eragozteko.

13. Eskolaratze-araudia aldatu, ikasleak hezkuntza publikoan eta beren inguru familiar eta sozialetik ahalik eta gertuen eskolaratzeko, Hau da, beren bizitokitik gertu.
14. Langile-taldeen planifikazioa, ikastetxe publikoetan behin ikasturtea hasita sartzen diren ikasleei eta eskola-ordutegian AHMP (Atzerritarrak Hizkuntzan Murgiltzeko Programa) aplikatzeari dagokienez.
15. Hezkuntza Barneratzailearen Mapa bat osatzea nafar hezkuntzarako, premia larrienei hezkuntza-arreta ematea lehenetsiko duena.
16. Egonkortasuna sendotzea eta handitzea langile organikoen kopurua handituz, kopuru funtzionalarekin doitzeko. Urtero egin deialdia eta oposaketetara atera indarrean dauden LPEetan jadanik onartutako lanpostu guztiak. Konplexutasun handiko ikastetxeetan eta sozio-ekonomikoki baztertuen dauden inguruetako ikastetxeetan, ratioa murrizten jarraitu.
17. Desabantaila sozioekonomikoengatik eta hezkuntza-ekitate mailengatik hezkuntza-beharrizanak dituzten ikasleen egoeraz datuak, adierazleak, azterketak eta ebaluazioak egitea eta argitaratzea aldizka, honezkero EDUCAREN bitartez Nafarroako Eskola Kontseiluaren webgunean (eta gainerako ikasleei buruzko datuak ere barnean dituela) hasitako bide beretik.
18. Eskola publikoko irakasleen lanari, inplikazioari eta ahaleginari aitortza handiagoa ematea, eta Irakasletza-graduetako eta Bigarren Hezkuntzako Masterreko irakasleen tutoretzenganako aitortza bultzatzea. Arlo horretan ikerketa sustatu Nafarroako hezkuntza-sareari onura ekartzeko helburuz, honezkero Unibertsitate Zerbitzuaren bitartez hasita dagoen bide beretik.
19. Irakasle-lanbidea sendotu. Sindikatu Mahaiekin hartu-eman egokia izan, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Hitzarmena sustatuz eta garatuz.
20. Aldizka handitzea (%50eraino) ikastetxe publikoen funtzionamendu-gastuetarako diru-kopurua, baliabide materialak lortu ahal izateko informatikaren, bibliografiaren, ikasgeletako materialaren, kirolaren eta ekintza osagarrien arloetan.
21. Landa-inguruetako eskolei laguntzeko Lurralde Lankidetzaren Plan espezifikoaren Landa-inguruko eskolei eustea herrietan. Landa-inguruko eskolak instituzionalizatzea eskola-eredu gisa, etengabe kontuan izanik haien antolakuntza eta funtzionamendua, lantaldeak, lan-baldintzak, lan-osagarriak, baliabideak, instalazioak, bitartekoak eta ikasketa-materialak. Eredu malgua eta lankidetzan oinarritua, antolakuntza- eta metodologia-arloak berritzeari

dagokionez hobekuntzak, irakasleen egonkortasuna, landa-inguruko eskolen arteko koordinazioaren garapena. Lurralde Lankidetzaren Plan horrek bat egingen du lurralde-koehesiorako planekin, tartean direlarik, besteak beste, Pirinioetako Ponentziatik eratorritakoak. Helburua Landa Inguruko Eskola indartzea izan da, irakasleen lan-baldintzak eta ikastetxeen antolakuntza hobetuko direla bermatzeko.

22. Lankidetzaren Hitzarmena egin Foru Administrazioaren eta Udal Administrazio garrantzitsuen artean, bazterketa-arriskuan dauden ikasleak identifikatu ahal izateko lankidetzaren antolatu eta eskolaratze-prozesua hobetzeko.

23. Azpiegitura/Ekipamendu Plana, irizpide publikoen arabera, eta diskriminazio positiboa hezkuntza-arloan laguntza espezifikoen premia duten ikasle gehiago hartzen duten ikastetxeentzat.

24. Hobekuntza berritzaileak Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan. Ikastetxeak eta ikaskuntzak irisgarri egin, eta baliabide nahikoak eman. Beharizan espezifikotara egokitutako ikastetxeen araudi organiko berria, ikasleen hezkuntza-arloko premiei eta premia sozio-sanitarioei erantzuten dieten profil profesionalak barne.

25. Zero eta hiru urte bitarteko haurren eskolaratzea handitu haur-eskoletan, doakotasuneranzko eta unibertsaltasuneranzko bidean, eta familia zaurgarrietatik hasirik, gaur egun egiten den bezala. 0-3 zikloa finantzatu kalitate-estandarren arabera eta lege-erregulazioarekin, eta 3 eta 12 urte bitarteko ikastetxeetan adinez beharkei ematen zaien arreta-ordutegia zabaldu.

Legedia egokitu hezkuntza-etapa horretan diharduten pertsonen lan-baldintzak bermatzeko.

26. Dauden programak sustatu eta, beharrezkoa balitz, beste programa espezifikoko batzuk garatu eskola uzteari eta absentismoari aurre egiteko, ikastetxeen, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta eragindako kolektiboekin lan egiten duten entitate sozialen parte-hartzeaz. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen koordinazioa eta eta esku-hartzea areagotu, eskola-uzte kasuetan.

27. Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoaren garapena, Lanbide Heziketa modernizatzeko eta egokitzeko ekipamenduei, bokazioen bideratzeari, sarbidearen hobekuntzari, komunitatearen egituratzeari eta eskaintzaren aniztasunari dagokienez, enpresa eta erakundeekin kontsultatuz eta bete-betean txertatuz trebetasun digital aurreratuenak, big data eta atzerriko hizkuntzak. LH sustatzeko informazio-kanpainak, eta ikastetxe integralen

- sorrera. Ongi bideratutako ekintzailletza sustatu, zuhurtasunez. Enplegu-politika aktiboen kudeatzeaz arduratzen den Departamentuarekin lankidetzaz zeharo bultzatu, enplegua duten eta ez duten pertsonentzako heziketa-jardueraz ezarrituen eremuan baliabideak optimizatzeko. Lanbide Heziketa Dualean aurrera jarraitzeko apustua egin. Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoan genero-ikuspegia txertatu.
28. Unibertsitate publikoko gradu-ikasketen lehenbiziko matrikulen doakotasuna eta geroko matrikuletan errendimendu akademikoari sariak bermatzeko beka-sistema ezarri gradualki.
 29. Bizitza osoan zeharreko hezkuntza-aukerak sustatuko ditugu, eta hartutako esperientziaren egiaztatze-prozesuak azkartuko ditugu. Bereziki bultzatuko dugu gaitasun digitalen eremuko eta STEM gaietako (zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematika) oinarritako heziketa, neskengan batik bat. Enplegurako Heziketaren eta araututako hezkuntzaren arteko koordinazioa eta sinergiak hobetuko ditugu, LHren kasuan batez ere.
 30. Baliabide urriko pertsona migratzaileen eta haien familien integrazioa erraztu. Metodo pedagogiko egokiak garatu eta eskualde guztietan programa espezifikokoak eskaini.
 31. Programak eta proiektuak sustatu, auzo edo herri berean dauden ikastetxeetako ikasleek hezkuntza-esperientziak partekatu ditzaten eta gertuko ingurunearekin elkarrekintza izan dezaten.
 32. Hizkuntza-eredu bat baino gehiago barne hartzen duten ikastetxeak sustatu.
 33. Beka mota ororentzat sistema modernizatu eta hobetzea. Beka-eskakizunen epeak egokitu ikasleek alaitz azkarren jakin dezaten noiz jasoko duten eta zenbatekoa izanen den beka, ikasturtea bukatu arte itxaron beharrik gabe.
 34. Gaur egun ohikoa den kopagoaren ordez, testu-liburuak benetan doakoak izateko beharrezkoak diren mekanismoak sustatu.
 35. Beharrezko eta nahitaezko euskararen hezkuntza-planifikazio publikoari lagundu, berezko hizkuntza gisa, borondatezkotasunetik eta bizikidetzatik abiatuta. Euskara ikasteko hezkuntza-eskaintza garatu gradualki eta progresiboki, legeak aurreikusitakoarekin bat eginez.
 36. Atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko curriculum- eta antolakuntza-egitura diseinatu eta garatu. Araudi bat onartuko dugu arlo horretako programen (IIP,

- AIP, FIP...) garapenerako alderdi nagusiak erregulatzeko: lantaldeak, ikastetxeen antolaketa, sarbide-eskakizunak eta irakasle-lanpostuen hornikuntza.
37. Hizkuntzak Ikasteko Programen garapena ikastetxeetan, honakoak kontuan harturik; irakasle kualifikatuak; kontsulta eta aurretiazko informazioa, hezkuntza-premia espezifikoak dituzten ikasleentzako erantzuna doitzea aurreikusiko duena; formazio-arloan aholkularitza eta laguntza; programazioa; ikastetxeen beste programa batzuk garatzea erraztuko duen komunikazio-metodologia.
 38. Harreman egonkorra koordinatu ikastetxeetako etapa guztien, NUPen eta irakasleen artean.
 39. Irakasleen hasierako formazioa eta haien hautaketa-prozesuak moldatu. Etengabeko Formazioa indartu, Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Hitzarmenean adierazitako eran. Definitu irakasleen profesionalizatzeko-eredua, bat egingo duena hezkuntza-eskubidearen gauzatzearekin eta etengabeko hobetze-prozesuan murgilduta dagoen hezkuntza-sistema irekiarekin.
 40. Unibertsitatearekin lankidetzan, hainbat urterako ikerkuntza-deialdiak egin, gaur egun lantzen ari den ildotik, egonkortasuna emateko bitarteko gisa. Legegintzaldi bakarrean ikerkuntzan diharduten pertsonen proportzioa Europar Batasunekoarekin parekatzeko talka-plana.
 41. Emakumeentzako kristalezko sabairik gabeko zientzia. Bokazio Zientifiko eta Teknologikoen Plan Estrategiko bat abiaraziko da, Gobernuaren politika ekonomikoa kudeatzen duen departamentuarekin batera, gaur egun Ingeniaritza eta Arkitektura ikasleen laurdena baizik ez emakumeak izatea eragiten duen errotiko desberdintasuna ezabatzeko.
 42. Musika- eta dantza-eskolen funtzionamendua ezartzen duen 1992ko Nafarroako Musika Eskolen legea berraztertu, eta Arte Bizien araudi berri batera egokitu.
 43. Ikastetxeetarako eraikuntza-proiektu berriak aztertu, energia-kontsumoa murrizteko irizpideei jarraituz, eta jadanik existitzen direnak modernizatu.

Espazioak ikastetxearen hezkuntza-proiektura egokitzea ahalbidetzen duten baldintza-orrien osaketan hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea areagotu.
 44. Derrigorrezko etapetako (6 urtetik 16ra) ikasturte orotan Ingurumen Hezkuntzari bultzada sendoa eman, gai transbertsal gisa.
 45. Ikastetxeetako ekipamendua zabaltzeko, berrosatzeko eta mantentzeko plana garatzen jarraitu. Halaber, azpiegiturak osatu, sare publikoko ikastetxeen

- premien araberako konektagarritasuna lortzeko, bai jarioari dagokionez bai azken belaunaldiko WIFI erabat segurua izate aldera.
46. Hainbat urterako NUPen finantzazio-hitzarmenaren jarraitutasuna bermatu. Baita ikasketa berri guztien garapena ere.
 47. Bizitzan zeharreko heziketa indartuko dugu, zabaltasun handiagoa eta erraztasun gehiago emanez unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapetara iristeko, helduen irakaskuntzatik lanbide-heziketara, hizkuntzen ikasketara eta arte-ikasketetara, hala nola unibertsitate-programetara.
 48. Irakasleentzako Laguntza Zentroen garapena sendotu, aholkulariak jarriz irakasleen etengabeko prestakuntzarako arlo zientifikoan, didaktikoan eta metodologikoan, hezkuntza-maila eta curriculum-eremu orotan
 49. Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (NHBBZ) eta Hezkuntza Bereziko Ikastetxe publikoak indartuko ditugu, hezkuntza-sistemak behar duen laguntza pedagogikoa emateko gai den egitura gisa. Hezkuntzaren abangoardiako gune bihurtuko dugu NHBBZ, ohiko hezkuntza-sistemaren osagarri eta haren menpeko. Berrikuntza- eta aplikazio-gunea izanen da, eta hezkuntza-sostengurako beharrian espezifikoen alorrean balorazio psiko-pedagogikoa, argitalpenak eta berriazko baliabide materialak sortu eta formazioa emanen du.
 50. Garraioa eskubide oso gisa aitortu ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta OLHko ikasleei. Salbuespenezko neurriak hartu beren ezaugarriengatik hala behar duten herrietan.
 51. Eskola Bizikidetzarako Plan Forala sortu, segurtatzeko ikastetxe orok izanen dituela eskola-bizitzarako oinarrizko ildoak, arreta berezia emanik bullying- edo jazarpen-kasuak, homofobia, xenofobia eta genero-desberdintasunaren ondoriozkoak prebenitzeari eta atzemateari. Horretarako, indarrez sustatuko da Laguntza programa.
 52. NUPen Tuterako campusa garatzeko aukerak aztertu.

3.2.- GENERO-BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA

Berdintasuna

1. 17/2019 Foru Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa, garatu. Lege horrek sistemaren erdigunean jartzen ditu bizitzaren jasangarritasuna eta pertsona ororentzako zaintza duinaren bermea, bultzatu egiten du berdintasun-politiken transbertsalitatea, eta neurriak proposatzen

ditu diskriminazio anizkoiak bukatzeko. Behar adina Giza Baliabide eta baliabide ekonomiko emanen da lege hori garatzen dela ziurtatzeko, eta bereziki azpimarratuko da xedapen gehigarriek ezarritakoa lehenbailehen betetzeko premia.

2. Gizarte osoari begirako prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzak eta programak bultzatu (hezkuntza-eremuan eta hedabideetan batez ere), balore berriak gehituz. Balore horien oinarriak izanen dira funtsezko eskubideei eta askatasunei begirunea, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari errespetua, kultur aniztasunaren balore positiboak, matxismoaren, arrazakeriaren, xenofobiaren, homofobiaren eta beste edozein diskriminazio-motaren molde eta jarrera oro errefusaturik, bizikidetzaren balore demokratikoen barneko tolerantzia eta askatasuna ahortzi gabe. Betiere giza eskubideetan oinarritutako genero-ikuspegi batetik abiatuta,
3. Hedabideetan genero-berdintasunari buruzko jardunbide egokirako kodeak ezartzea eta arlo horretako formazioa bultzatzea.
4. Berdintasun-arloko prebentzioaren eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzearen aldeko apustua egin, ikastetxe orotan derrigorrezkoak diren hezkuntza afektibo-sexualari, berdintasunari indarkeriarik ezari buruzko edukien lanketa ziurtatuz.

Xede horrekin, Nafarroako funts publikoekin finantzaturako ikastetxe orotan hezkuntza bateraturako Skolae programa ezartzea, sustatzea eta defendatzea bermatuko dugu. Era berean, beharrezkoa da gai horiekiko sentsibilizazioa indartzea, kanpainen eta adierazpen publikoen bitartez, jakinarazpenetan hizkuntza barneratzailea erabiliz, eta aipaturiko programari buruzko heziketa-ekintzak zuzenduz hainbat eragile sozial eta politikori, besteak beste.

5. Lan-arloko diskriminazioak ezabatzea. Erantzun egin behar diegu egiturazko arazoei, hala nola emakumeen jarduera-tasa txikiagoa eta haien langabezia-portzentajeak handiagoak izateari, baita lan- eta soldata-arrakalari ere.

Horretarako beharrezkoa da lan-diskriminazioak neurtzeko bitarteko estatistikoak garatzea, eta horietan oinarriturik neurri zuzentzaileak proposatzea. Marko horretan, Nafarroako Gobernuak lan bateratua bultzatuko du erakunde publikoekin, gizarte-eragileekin, sindikatuekin eta enpresa-elkartekin, ekimen zehatzak abian jartzeko, lan-ikuskaritza eta kontziliaziorako eta erantzukizuna partekatzeke neurriak besteak beste (ordutegien malgutasuna eta egokitzapena, konparazio baterako).

6. Berrogeita bost urtetik gorako emakumeentzat, eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenenentzat, berriazko enplegu-programak sortzea.

7. Nafarroako enpresa orotan, publiko zein pribatuetan, genero-berdintasunaren txertatzea sustatzen jarraitzea. Diagnostikoak eta Berdintasun Planak oinarritzko lanabesa dira zeregin horretan, eta erakunde publikoek pizgarriak emanen dituzte halakoak osatzeko eta ezartzeko, legeak dioenetik haratago ere.
8. Maskulinitate berdinezaleen ospe ona eta ezarpena sustatzeko sentsibilizazio- eta heziketa-kanpaina publikoak egitea. Arlo horri buruzko formazio eskainiko du NABIk, Nafarroako Administrazio Publikoaren heziketa-ibilbidearen barnean. Formazio horretan genero-indarkeria eta genero-desberdintasun mota guztiak prebenitzeko programak txertatuko dira, eta batez ere gizonezkoen zuzenduko zaizkie.
9. NABIren bitartez, Nafarroako udaletan eta eskualdeetan berdintasun-agentek mantendu, eta halakorik ez den tokietan ezarri, Nafarroako herritar ororengana iristeko xedez
10. Udaletan berdintasun-diagnostikoak eta berdintasun-planak egitea bultzatu, horixe baita tresnarik egokiena berdintasun-arloko ekinbide politikoen diseinurako eta ebaluaziorako.
11. Berdintasunaren aldeko Udal Entitateen Sarea sortzeko laguntza ematea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren barruan. Nafarroako udal erakundeetan Berdintasunaren aldeko lana koordinatzea izanen da sare horren egitekoa.
12. Genero-inpaktuari, legediari, dekretuei, araei, plangintzei eta programei buruzko txostenen hobekuntzan sakondu beharra dago, legegintzaldi honetan txosten horiek era egokian egin daitezzen egindako lanaren ondoren, diskriminazioak ekiditeko eta ekintza positiboak sustatzeko.
13. Nafarroako Foru Komunitateko Politika Publikoetan Emakumeen Parte-hartze Sozial eta Politikorako 2018-2020 Estrategia sakontzeko urratsak egitea, bereziki emakumeen banakako eta taldekako ahalduntze-prozesuei dagokienez, hala nola politika publikoetan eta erabakitze-prozesuetan haien parte-hartzea handitzeari dagokionez.
14. Departamentuetan Berdintasun-unitateak sortzeko lanean jarraitu, eta egitura hori sendotu.
15. Landa-eremuko emakumeen lidergoa sustatu, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, emakumeen formazioari lagunduz zuzendari-lanaren, lantaldeen koordinazioaren, gaitasun sozialen eta komunikazioaren arloetan.

Indarkeria matxistak

16. 14/2015 Foru Legearen jarraitzea eta ebaluazioa egiteko marko eraginkorra sortzea, bertan parte hartuko dutelarik emakume-elkarteek, talde feministek, eremu horretan lan egin ohi duten entitateek, eta prebentzio-, arreta- eta osatze-zerbitzuetako langileek eta arduradunek.

Ebaluazio horretan oinarriturik, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ezarriko dira.

17. Edozein indarkeria matxista motaren biktimak izan diren emakumeei, eta haien seme-alabei, arreta integralean aurrera egitea, indarkeria matxistak jasaten dituzten emakume eta neskatuentzako konpentsazioa, ordaina eta autonomia berreskuratzeko banakako Plan Integral bat bermatuz.

Emanen diren zerbitzuen artean, ziurtatu egingen da indarkeria matxistak jasaten dituzten emakume horiek berehala izanen dutela beste bizitoki batera joateko aukera, baita haien zaintzapeko adinez beherakoek, nerabeek eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen ere.

18. Sexu- eta genero-indarkeria jasan duten emakumeei arreta psikologikoa eskaintzeko baliabideak handitzea. Berrosatze-politiken foku nagusia hori izanik ere, ezin daiteke ahortzi era horretako ekintzak egin dituzten gizonekin lan egiteko beharra, gazteekin batez ere, jokabide horiek ez errepikatzeko eta erabateko errehabilitazio soziala lortzeko xedez.

19. Emakumeen salerosketaren aurka (bereziki sexu-esplotazioko egoeretan) borrokatzeko ekintza-plana, giza baliabideen eta baliabide teknikoaren hornidura barne, Nafarroako Gobernuak bere gain duen Sexu-esplotaziorako Salerosketaren Biktimak izandako Emakumeekiko eta Umeekiko Koordinazio eta Ekintza Protokoloa aplikatuz.

Sexu- eta ugalketa-eskubideak

20. Gizarte osoarentzako sexu- eta ugalketa-eskubideen arloko heziketarako eta prebentziorako politika aktiboak bultzada, Sexu eta Ugalketa Osasunari buruzko 103/2016 Dekretuaren ildoan.

21. Sexu-eta ugalketa-osasunerako gune-sarearen lana indartu. Amatasun aske eta kontzientea erraztu, lagundutako ugalketarako aukera emanez, eta babes espezifikoa emanez ama izatea erabakitzen duten emakumeei, erabakitzen baldin badute. Halaber, metodo antikonzeptibo berriak eta larrialdietako antikonzeptzioa eskuratzeko eta haurdunaldia borondatez eteteko aukera eman emakume orori Nafarroako Osasun Sistemaren barruan, baita zaugarritasun-

egoeran direnei ere. Familia-planifikazioa eta sexu- eta ugalketa-osasuna sustatu.

LGTBI+

22. LGTBI+ pertsonen berdintasun Sozialerako 8/29017 Foru Legea betearazi, berriki onarturiko Ekintza-plana garatuz, eta legeak ezartzen duen eta aipaturiko Plana garatzeko nahitaezkoa den administrazio-egitura bermatuz.
23. Nafarroa osoan LGTBI+ politikak indartzea, Kattalingune zerbitzua finkatuz eta hedatuz, beste egiteko batzuen artean LGTBI+kolektiboen errealitateaz eta beharrezko diagnostikoak egitea bultzatuz, landa-eremuei arreta berezia eskainirik.

3.3.-ONGIZATEAREN NAFARROA SOZIALA

Osasun-politika

1. Osasunerako Foru Lege berria egin, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidea (NOZ-O) eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI) modernizatuko dituen, kudeaketa autonomoagoa, arinagoa eta eraginkorragoa egiteko gaitasun juridikoa eta antolakuntzazkoa emanen duena, eta gaur egungo gizartearen beharrezkoak egokituko dena. Lege horrek kontuan izan behar ditu, besteak beste, osasungintzarako hezkuntza eta ingurumen- eta lan-osasuna.
2. NOZ-Oren (osasun-etxeak barne) jardueren kudeaketan, erabakietan, plangintzan, kontrolean eta ebaluazioan parte-hartze sozial, sindikal eta profesionalaren aldeko apustua egin. Osasun Kontseiluak berpiztu eta sustatu, haien osaketa eta funtzioak berriaz aztertuz, erabakiak hartzeko garaian horizontaltasun handiagoa izateko eta baliabideak koordinatzeko eta udaletako eta eskualdeetako beharrezkoak betetzeko gaitasun handiagoa izateko xedez.
3. Farmazia-arloan eraginkortasunaren alde egin, beste neurri batzuen artean sendagaien zentzuzko erabilera eta generikoak eta bioantzekoak errezetatzea bultzatuz, bereziki Espezializatutako Arretan, farmako berriei buruzko informazioa zerbitzu publikoaren bidez erregulatuz. Farmazia-industriari profesionalengan eta gaixo-elkarteengan duen eraginari mugak ezarriko zaizkio, Betiere sistema desmedikalizatzeko xedearen bila.

4. Arreta bio-psiko-sozialerako eredu bat bultzatu, pertsonen eta komunitatearen beharrei lehentasuna emanen diena, eta osasunaren zaintzaz den bezainbatean ardura partekatua sustatuko duena.
5. Premia bereziak dituzten kolektiboetarako Nafarroako plan soziosanitario integrala gaurkotu eta erabat garatu, baliabide nahikoa emanez. Etxetako arreta soziosanitario programa zabaldu, ospitaleratzeak eta egoitzetan sarrerak prebenitzeko eta etxean egotea sustatzeko. Hauskortasuna alaitzen arinen atzemateko programak hedatu eta errehabilitazio funtzionala hobetu, fisioterapia eta etxez etxeko errehabilitazioa deszentralizatu.
6. Aztertu Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta beste osasun-entitate batzuen artean indarrean dauden itunak eta diagnostiko-proben deribazioak, subsidiariorotasun-printzipioa eta baliabide publikoen erabilera egokia oinarritzat harturik, eta salbuespenezko izaera, interes publikoa eta osagarritasuna bermatuz. Lehentasuna eman zerbitzuaren kalitate-estandarrak, genero-berdintasuna, langile-ratioak eta haien lan-baldintza egokiak bermatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteekin egindako itunei.
7. Osasun Publikoa indartu, eta komunitatearen esku-hartzea eta osasuna bultzatu politika orotan, honakoak bezalako jardueren bidez:
 - ✓ Osasunaren Sustapena eta Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia indartu.
 - ✓ Osasunaren Behatokiak atzematen dituen eskualde bakoitzeko herritarren eta ingurumenaren beharretara egokituriko berariazko neurriak dituzten komunitate-programak garatu,
 - ✓ Esku-hartze Komunitarioako Kontseilu Soziosanitarioak abian jartzea.
 - ✓ 2017-2022 epealdirako Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Nafarroako Ekintza Plana garatzen jarraitu.
 - ✓ Umeen eta helduen loditasunaren aurkako Programak sendotu, ariketa fisikoa sustatzeko plangintza espezifiko barne.
 - ✓ Klima-aldaketarekin zerikusia duten prebentziozko ekintzak indartu eta egokitu.
 - ✓ Osasun-eskolak indartzen jarraitu.
 - ✓ Nafarroa bihotz-osasunaren arloan babestutako erkidego bihurtuko duen plan integrala.
 - ✓ Lan-osasunaren politikak eta egiturak sendotu, lan-istripuak gutxitzeko eta lan-eritasunak prebenitzeko, osasun publikoko ikuspegi batekin.
 - ✓ Tabakoarekiko menpekotasuna gutxitzeko eta haurrak tabakismoan ez hasteko neurriak sustatzen jarraitu.

- ✓ Nafarroako III droga- eta adikzio-plana garatu, arreta berezia eskainirik gazte eta nerabeei substantzien (alkohola, tabakoa, kalamua...) kontsumoari dagokionez, baita apustu eta substantziarik gabeko bestelako adikzioei dagokienez ere, Legedi murriztailea areagotu jokoaren alorrean, ikastetxeen inguruneetan ezartzeari dagokionez batik bat. Jokoaren zergetatik jasotako diruaren zati bat bideratu jokoarekiko menpekotasunaren prebentzio- eta tratamendu-programetara.
 - ✓ Osasun Publikoko laborategien Integrazioa burutu.
8. Apustu argia egin osasun-sistemaren ardatza Lehen Mailako Arreta izan dadin, behar adina finantzatuz; xedea sistemaren baliabideen %20 horretara bideratzea izanen da. Lantaldeei kudeaketarako autonomia eta erabaki-ahalmen handiagoak emanen zaizkie, eriei behar adinako arreta-denbora eskaintzen zaiela bermatuz, eta izaera integral eta diziplina anitzekoa emanaz.
9. Lehen Mailako Arretarako Estrategia inplementatu, honakoak barne:
- ✓ Oinarrizko eskualde bakoitzean lehen mailako arreta-taldeek eskaintzen dituen zerbitzu-multzoa indartu.
 - ✓ Eskualde arteko ekitatea hobetu, zerbitzuak deszentralizatuz, herritarrak landa-eremuan finkatzea sustatzeko.
 - ✓ Finantzazio egokia. Aurrekontua nabarmen handitzen jarraitu, osasun-zentroei giza baliabide eta baliabide tekniko nahikoak emanaz.
 - ✓ Birdefinitu soslaiak eta estamentu profesionalen egitekoak, eta osasun-langileei lan administratiboa kendu.
 - ✓ Lantaldeak indartu, eta ordezkapenak era egokian egiten direla ziurtatu.
 - ✓ Oinarrizko Arreta Unitateak berregituratu, eta Osasun-txartel Indibidualen (OTI) kopurua doitu, profesionalen arreta-zama orekatzeko, eta kupoak berrantolatzeke honako irizpideen arabera: zaharkitzea, sakabanatze geografikoa, kronikotasuna, eta alderdi ekonomiko eta sozialak (migrazioa eta bestelakoak).
 - ✓ Lehen mailako arretan diharduten erizainen gaitasun eta erantzukizunak sustatzea, hainbat soslai definituz.
 - ✓ Osasun Eskualde Oinarrizkoei (OEO) gizarte-langileak bideratzen jarraitu, lan soziosanitarioa sustatzeko, bai asistentzia-eremuan, bai komunitarioan.
 - ✓ Etengabeko eta Larrialdietako Arretaren Erreforma plana. Komunitate osoaren berdintasuna bermatuko duten eskualdeetako larrialdi-zerbitzuak garatu legegintzaldiaren barruan, denboraren arabera larrialdiei erantzuteko.
 - ✓ Larrialdi-zerbitzuen, ospitalez kanpoko larrialdien eta oreミアzko osasun-garraioaren koordinazio funtzional bakarra erraztu.

- ✓ Lehen Mailako Arretako profesionalek arretaren bigarren mailarekin duten komunikazioa eta koordinazioa erraztu, erien beharrei erantzun azkarra eman ahal izateko.
10. Asistentzia-zerbitzuak "eri kronikoentzako arreta estrategia" baterantz bideratu. Estrategia horrek Lehen Mailako Osasun Arretaren rola indartuko du eriek sisteman duten eragile nagusi gisa, eta haren integrazio- eta koordinazio-neurriak sustatuko ditu, bai larrialdi-zerbitzuekin bai espezializatutako arretarekin. Distritu bakoitzean erreferentziako espezialistak izendatu Barne Medikuntzan eta Geriatrian. Buruz burukoak ez diren kontsultak inplementatzen jarraitu. Erabakimen handiko eta diagnostiko azkarreko zirkuituak garatu.
 11. Haur eta nerabeenganako arreta integrala sustatu, arreta berezia emanik gurasotasun positiboari, sare-lanari, arrisku psiko-sozialari, loditasunari, haur eta gazteen tabakoarekiko menpekotasunari, ludopatiari, eta abusuzko eta arriskuzko sexu-jarduerei. Beharrezkoak diren neurriak hartu pediatria-adina duten haurren lehen mailako arreta pediatrian espezialitatea duten medikuek eman dezaten.
 12. 2019-2023 epealdirako Osasun Mentalerako III Plana garatu, Lehen Mailako Arretan psikologia klinikoa ezartzeko aurrerapausoak eginez, buru-eritasunak dituztenentzat erabateko estaldura bermatuz osasun mentaleko zentroen aldetik,
 - ✓ Osasun mentalaren alorrean prebentzioa sustatu, Lehen Mailako Arretarekin eta Osasun Publikoarekin koordinaturik.
 - ✓ Lehen gertaera psicotikoetan esku-hartze goiztiarra egiteko programa hedatu Tuterara eta Lizarrara.
 - ✓ Jokabide suiziden aitzinean Nafarroako Ekintza eta Prebentzio Plana errebisatu eta gaurkotu.
 - ✓ Nafarroan suizidio-tasa gutxitzea sustatu prebentzioaren bidez eta arriskuan dauden pertsonei arreta integrala eskainiz, banaka, familian, eskolan eta gizartean, jokabide suizidekin eta suizidioekin zerikusia duten albisteen tratamendu egokia sustatuz hedabideetan.
 - ✓ Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Arreta Eredua ezarri Lizarran.
 13. Ebidentzian oinarrituriko medikuntza sustatu osasun-arloko esku-hartzeetan, eta ez ahalbidetu osasungintza publikoak behar bezalako egiaztatze zientifikorik gabeko jarduerak sustatzea eta garatzea (sasi-zientzia izenekoak, esaterako).
 14. Sexu-eta ugalketa-osasunari buruzko 103/2016 Foru Dekretuaren erabateko garapena, haren alderdi eta arlo orotan. Haurdunaldiaren etete farmakologiko

- legezkoa bermatu Nafarroako Osasun eremu orotan. Horri buruzko teknikez NOS-Ok eskaintzen duen informazioa handitu.
15. Osasungintzako profesionalen artean hezkuntza psiko-emozionalaren arloko formazioa sustatu, asistentziaren maila guztietan, besteak beste genero-indarkeriako balizko kasuak atzemateko.
 16. Prebentzio-kanpainak areagotu GIBaren eta Sexu Bidezko Eritasunen intzidentziaren handitzea dela eta. Profesionalekin eta erien elkarteekin lankidetzan egingen da lan hori, eta nerabeak izanen dira xedea. Listuan GIB test azkarrak sustatuko ditugu, ondoren baieztatze serologikoa eginik eta konfidentzialtasun-irizpideekin jokatzuz betiere. Horrekin loturik, genero-indarkeriaren eta sexu bidezko infekzioen detekzio eta esku-hartze goiztiarrerako protokoloak sendotu eta sustatu. Gazteentzako berriazko zerbitzu berriak garatu.
 17. Diziplina Anitzeko Unitate berriak garatu minbizi-tipologiak, neuroendekapenezko eritasunenak eta lehentasunezko beste patologia batzuk aztertzeke.
 18. Bizitzaren bukaeran arreta: zaintza aringarriak eta arreta integrala bermatu pertsona ororen bizitzaren bukaeran. Zaintza aringarrirako erietxe barruko unitatea sortu Nafarroako Ospitale Gunean. Etxez etxeko arreta indartu zaintza aringarria hartzen duten erientzat, lehen mailako arretarekiko koordinazioa hobetuz.
 19. Aurretiazko borondatearen agiriaren aitortza eta betetzea sustatu. Heriotza Duineko Behatokiaren estrategiak bultzatu eta baliabidez hornitu, eta bizitzaren bukaerari buruzko ikerkuntza bultzatu. Osasungintzako langileen formazioa sendotu dolu-prozesuarekiko, eta eritasun terminalak dituztenentzat eta haien senideentzat arreta psikologikoa sustatu.
 20. Gorte Nagusietan eutanasia despenalizatzeko ekimen legegileak sustatu.
 21. Airearen kutsaduraren aurka (airearen kalitate-plana) eta zarata-kutsaduraren aurka borroka-plan bat ezarri, aintzat harturik OMEk proposaturiko mugak, gaurko legedian jasotakoak baino murriztaileagoak.
 22. Estatuko Gobernuari eskatu Estatuko administrazio orokorraren hiru mutualitateak (Muface, MUGEJU eta Isfas) Osasun Sistema Publikoan txertatzeko beharrezkoa den araudia gara dezala.

23. Osasungintzak aurrekontu egonkor eta nahikoa izanen duela ziurtatu: PGBren %6,5 ezarririk xede gisa, hornidura publikoari eta osasun publikoaren, lehen mailako arretaren, inbertsioen eta ikerkuntzaren arloei aurrekontuak ematea lehenetsiz, eta gastu farmazeutikoaren eta ospitaleratzeengatikoko gastuaren gehiegizko hazkundera kontrolatuz, baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko politikekin batera.
24. NOS-Osasunbidearen antolaketa Osasunean emaitzak erdiestera bideratu, osasun-harremanak medikalizatzeko eta baliabide teknologikoak intentsiboki erabiltzeko estrategiaren orde. Osasun Sistemaren arintasuna, eraginkortasuna, eta segurtasuna hobetu, kudeaketaren erdigunean jarritz itxaron-zerrenden murrizketa eta osasun-emaitzen lorpena.
25. Ospitale Arreta berregokitu, beste eredu bat definituz, komunitaterentzat irekiago bihurtuz, arreta gutxiago zatikatuz eta zerbitzuen arteko eta Lehen Mailako Arretarekiko koordinazioa handituz.
26. Eraginkortasuna sustatuko duen, arlo orotan erabateko garapen profesionala bultzatuko duen, langileen asebetetzea hobetuko duen eta, espezialista-gabeziako testuinguru honetan, profesionalak erakartzea eta atxikitzea ahalbidetuko duen langile-politika garatu.
27. Lehen mailako arretarako azpiegitura-plan bat sustatu, aurretiaz beharizanen azterketa eginik, eta populazio-gune berrietan esku-hartzea lehenetsiz eta arinduz.
28. Nafarroako Ospitale Gunean (NOG) eta Tuterako eta Lizarrako eskualdeetan Ospitale Inbertsioen Gida Plana osatu eta abiarazi. Plan horrek osatu eta bildu egin beharko ditu banakako logeletan ospitaleratzea areagotzeko aurreikusitako neurriak, NOGeko Ospitale Larrialdien eremua handitzea, laborategiaren berregituratzea (Luna Proiektua), Tuteran hemodialisia, NOGen PET bat, ebakuntza-gela hibrido edo robotiko bat eta bigarren angiografoa ezartzea. Terapia geniko eta zelularrak garatzeko GMP/Areto Zuriaren garapena osatu.
29. Pertsonalizaturiko edo Prezisiozko Medikuntza Estrategia bat (RIS 3) garatu, Data Center bat eta Genoma banku bat sortu,
30. Ikerkuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren kudeaketa:
 - a. Osasun-ikerkuntza publikoa bultzatu NUPekin lankidetzan. IDISNari egonkortasuna eman Ikerkuntza eta Berrikuntza Institutua izan dadin,

- hala nola formazio- eta ikerketa-alorretan aliantzen eta sinergien sortzaile. IDISNAren zientzia-estrategiaren lidergo publikoa indartu.
- b. Osasun-zentro publikoetan ikertzaileentzako deialdi-kopurua handitu (medikuntza, biologia, farmazia, biokimika, erizaintza, etab.)
 - c. NOS-Oko asistentziarako langileek ikertzea sustatu.
31. Osasun Sistema Publikoaren babes irmoa NUPen Medikuntza Fakultatea sortu eta garatzeari.
32. 2020an bukatuko den Nafarroako Osasun Planaren ebaluazioa eta gaurkotzea.
33. NOS-Oko osasungintzako profesionalak kudeaketaren alorrean formazio aurreratua jaso dezaten apustua egin, hautaketarako irizpide gardenak erabiliz. Osasun-zentro publikoen kudeaketa progresiboki profesionalizatu, merituen eta gaitasunaren arabera.
34. Espetxeetako Osasun eskuduntza bereganatu.
35. Humanizatze Planean aitzina egin eta sakondu.
36. Federazioen menpeko kirol-jarduerarekin zerikusia duen osasun-arretaren estaldura- eta hornidura-sistemak berraztertu eta gaurkotu.
37. Gure komunitatean erizaintzak duen rola garatu, indartu eta homogeneizatu, besteak beste honako neurrien bidez:
- d. Erizaintzako profesionalentzat erantzukizun eta egiteko berriak esleitu, kontuan izanik haien gaitasuna handitu egin dela.
 - e. Bereziki indartu espezializatutako erizaintza.
 - f. Erizaintzako kontsulten garapen handiagoa bultzatu, ospitale-eremuan batez ere
 - g. Erizaintzaren garapenari eta autonomiari lagundu, haren arlo orotan.
 - h. Kasuen kudeaketarako erizaintzaren lana sustatu eta inplementatu NOS-Oren osasun-zerbitzu orotan.
 - i. Erizainek ikerkuntza egin dezatela sustatu.
 - j. Erizainek sendagaiak eta bestelako osasun-produktuak hartzeko baimena ematea sustatu, legedi berriarekin bat eginik.
38. Erantzukizuna hartu 112tik erantzun egokia emateko larrialdiei eta premiazko egoerei, denboraren menpekoak diren larrialdiei ahalik eta arretari hoberena ematea lehenetsiz.

39. Osasun-garraioa koordinatu, zerbitzua kalitaterik handienarekin eskaintzeko eta balia bideak erarik eraginkorrean erabiltzeko xedez.
- k. Nafarroan Osasun Garraioa arautzen duen Foru Dekretua gaurkotu.
 - l. Larrialdietako Osasun Arreta Sistema eta Larrialdietako Osasun Garraio Sarea bateratu. Osasun Departamentuaren ardura zuzenaren pean jardungo dute zerbitzuok.
 - m. Larrialdietarako Osasun Garraio Enpresa Publiko bat sortzeko aukera aztertu.
 - n. Osasungintzako profesional orori eginiko eraso fisiko eta psikikoen aitzinean babes-neurriak sustatu.
40. NOS-Ok transplante-programak beregana ditzan urratsak egin, Transplanteen Erakunde Nazionalarekin adosturik.

Gizarte Politikak

41. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea berraztertu, errealitate berrietara egokitzeko xedez.
42. Sustatu Errealitate Sozialaren Behatoki Publikoa, zeina tresna egokia suertatu den barne-informazioa bildu eta azterketa eta analisiak egiteko. Analisi horiek ahalbidetu egin dute politika sozial ahalik eta egoki eta eraginkorrenak planifikatzea eta diseinatzea. Gainera, funtsezkoa da berrikuntza sozialeko proiektuak sustatzeko tresna izatea.
43. Gizarte Zerbitzu Sozialen Zorroa gaurkotu, egitarauak, zerbitzuak eta prestazioak egokitzeko egoera berrira; zaharkitzea, desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa eta espazio soziosanitarioaren garapena. Gaurkotze horrek pertsona ororentzako prestazioak eta bermatutako zerbitzuak handituko ditu foru-lurralde osoan, modu berdinezalean.
44. Giza Zerbitzuen Plan Estrategikoa garatu eta hobetu, giza zerbitzuen arloan ikerketa-, garapen-, berritze- eta profesionalizatzeko-estrategia indartuz. Era berean, garatu Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa (2018-2021), Nafarroan Populazio Ijitoa Gizarteratzeko Estrategia (2018-2021), Nafarroako Komunitatean Familiei, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko II Plan Integrala (2017-2023), Desgaitasun Plana (2019-2025) eta Boluntarioritza Plana.

45. Itun sozial eta sanitarioen Foru Legea sustatu, jadanik existitzen diren zerbitzu eta programak egonkortu ahal izateko, eta zerbitzu berritzaileak abiarazi ahal izateko.

46. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu sistemari erabateko bultzada eman, 2020ko urtarrilaren 1etik indarrean izanen den OGZak finantzatzeko Foru Dekretua onartuz, eta Gizarte Zerbitzuetako Lehen Mailako Arreta berrantolatuta Nafarroako herritarrek gaur egun behar duten Lehen Mailako Arreta ereduaren arabera, lurralde osoan era homogeneoan Gizarte Zerbitzuetako Zentroen mapa osatuz eta haien egitekoak eta esku-hartzeak berriz planifikatuz. Oinarriztat hartuko da 2019ko Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Lehen Mailako Arretarako Esparrua.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei langile eta bitarteko nahikoa emanen zaie jardun asistentzialista hutsetik haratagoko esku-hartze soziala egin ahal izan dezaten eta pertsonak ardatz dituen arreta integrala berma dezaten. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu orotan Arreta Komunitarioa ziurtatuko dugu, inklusio sozialerako eta komunitatea eraikitzeke lanabes gisa, egiteko komunitan parte-hartzea, asoziazionismoa eta boluntariora sustatuz bizikidetzaz-araioak prebenitzeko, kulturartekotasuna bultzatzeko, inklusio soziala hauspotu eta, azken batean, auzokideen arteko kohesio soziala indartzeko. Prestazioen aldekoa baino, zerbitzuen aldeko apustua egin; horretarako, beharrezkoa da zerbitzu-egitura sendoa egonkortzea.

47. Behin haren funtzionamenduaren ebaluazioa eginik, aztertu egingo da Gizain Fundazio Publikoak Gizarte Zerbitzuetako Zentroen kudeaketa publikoa osatzeko aukera.

48. Historia Sozial Bakarra abiaraztea.

49. Gizarte-arloko hirugarren sektorerako finantzazio-esparrua sortzeko konpromisoa. Esparru horrek behar besteko diru-hornidura izanen beharrezko formulekin, hala nola hainbat urtetarako hitzarmenak eta diru-laguntzetarako deialdiak behar adinako aurrerapenez argitaratzeko konpromisoa.

Menpekotasuna

50. Plan Estrategiko bat eta plan eragileak osatzea, zeintzuetan, lurralde-irizpideekin, zerbitzu- eta prestazio-premiak ezarriko diren (erresidentzia-plazak, eguneko egoitzak, etxez etxeko arreta, zaintzaileak, etab.), abiapuntutzat harturik Norberaren Autonomia Sustatzeko eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarako 39/2006 Legea, hala nola gaiari buruzko Nafarroako araudia. Plan horiek honako xedeak izanen dituzte, besteak beste:

- Prestazio eta zerbitzuen maila ziurtatzea, ekonomiaren gorabeherak edozein direla ere.
- Zerbitzuen kopagoa berriz aztertu eta moldatzea, egoitzetan batez ere.
- Gaur egungo araudia berrordenatzea.
- Eremu honetako zerbitzuetan diharduten profesionalen soslaiak eta ratioak gaurkotzea.
- Lurralde osoan prestazioak eta arretak homogeneousatzea.

51. Menpekotasunaren esparruan, lan egingo da prestazioak birbideratzeko, behar diren zerbitzuen sorreraren bitartez aldarazteko diruzko prestazioak zerbitzuak baino hagitzez handiagoak izateko ohiko joera.

52. Autonomiaren Sustapena eta menpekotasunaren prebentzioa indartu: NASZ direlakoak eta Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuak sustatu, azken horiek menpekotasunik gabeko pertsonak ere erabili ahal izateko aukera emanez, hain zuzen ere haien prebentziozko funtzioagatik, gizarte-zerbitzuen zorroak ezartzen duen bezala.

53. Garapena baloratu, eta behar diren moldaketak egin, honako hauetan:

- Abenduaren 19ko 476/2018 Foru Agindua, diru-laguntzak arautzen dituen menpekotasun-egoeran dauden pertsonak bere etxeetan egon ahal izateko, zerbitzuak kontratatuz: zaintzaile profesionala edota zerbitzu-enpresa.
- Itun-eredu berria: egoitzetako plazak, eguneko egonaldiak eta autonomiaren sustapena kudeatzeko Akordio Esparrua. Aitzina egin zerbitzuarekin lotura duten prestaziodun plazak publiko edo itunpeko bilakatzeko.

54. Tafallako eskualdeko arreta integratuko ekimenaren balorazioa. Eraitzen arabera definituko da zer beste ekintza behar den, osasun- eta gizarte-eremuetan zaintzaren premia handia duten pertsonenganako arreta hobetzeko behin betiko eta erabateko bultzada emanez.

Gainera, lan egingo da gune soziosanitario horrek arazo soziosanitario guztiak hartzeko bere gain.

55. Eskubide Sozialetako Departamentuan berriazko unitatea sortzeko aukera aztertu, Osasun Departamentuko profesionalak edo arduradunak ere barne hartuko dituen, eta arreta soziosanitarioaren maila guztiak koordinatzeko eta bateratzeko zeregina izanen duena.

56. Menpekotasunaren arloan erantzukizun partekatuan aitzina egiteko eta arautu gabeko zaintza nagusiki emakumezkoen gain egotea saihesteko neurri eraginkorrak aztertu.

57. Plan horretan, menpekotasunerako eta desgaitasunerako prestazio-multzoa berraztertu eta harmonizatu beharko da funtsezko hainbat arlotan: sarbiderako

eskakizunak, erabilera-baldintzak, prestazioen bateragarritasuna eta ezarri beharreko tarifak. Plan horrek, halaber, inbertsio-programa bat izan beharko du, bai egoitza publikoetarako bai irabazi asmorik gabekoetarako.

Desgaitasuna

58. Nafarroako Gobernuak berriki onartutako Desgaitasun Planaren erabateko garapena.
59. Egoitza okupazionalak itunpeko bihurtu, eta bermedun prestazio-izaera aitortu.
60. Irisgarritasun unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen garapen normatiboa eta aplikazioa. Baita ere 2006an Nazioa Batuek onartu zuten Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren aginduena. Foru legeak egokitu Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren araudira.
61. Foru-araudia egokitu Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBEren Hitzarmenera, eta Nazioarteko Hitzarmena bete.
62. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko Foru Legea egiteko aukera aztertu.
63. Pertsona Helduen Tutoretzarako Nafarroako Fundazioa sustatu.

Haurrak eta familiak

64. Familia-eredu ororen aitortza benetako eta eraginkorra, berdintasunean eta diskriminaziorik gabe,
65. Nafarroako esparru juridiko, normatiboa eta legegilea eguneratzea, haurren eskubideak ikuspegi integral batez berma daitezen. Osatu Haurren eta Nerabeen lege Integrala, indarrean dagoena eguneratuko duena eta beharrezkoa den nafar araudi guztia egokituko duena uztailaren 28ko 26/2015 Legera, haurrak eta nerabeak babesteko sistema eraldatzen duena.

Lege horrek honako ezaugarriak izan beharko ditu, besteak beste:

- 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarrituta egotea. Hitzarmen hori 1990ean berretsi zuen Espainiako Estatuak. Europar eremuari dagokionez, aintzat hartu Europako Parlamentuaren A3-0172/92 erabakia, Haurren Eskubideen Europar Gutuna onartu zuena.
- Lege, plangintza eta onartutako sektore-politika orok haurrengan duten inpaktuen beharrezko ebaluazioa aurreikustea.

- Familiaren, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren III Plan Integralean jasotako printzipioak bere egitea, plan horrek benetako eskubide-subjektutzat jotzen baititu haur eta nerabeak, eta komunitate-esparrua ekintzarako espazio sozial eta erreferentzia nagusi bihurtzen baitu.

66. Aldi berean, Familiaren, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren III Plan Integrala garatuko da, prebentzio-programei berebiziko arreta eskainiz.

67. Haurren Pobreziari aurkako Goi Mandatariarekin koordinazio eraginkorra ezarri.

Adinekoak

68. 2017-2002 epealdirako Nafarroako Zaharkitze Osasungarrirako Estrategia garatzea. Eta horretarako, programak sustatuko ditugu, erretiroa eta zaharkitzea ikuspegi positiboz lantzen dituzten enpresekin, sindikatuarekin eta adinekoen elkarteekin elkarlanean.

69. Bakarrik bizi diren adineko pertsonentzat zerbitzu-sistema publikoa sortzeko lan egin, eskualde bakoitzeko eskari espezifikotara egokituko dena. Programa hori Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen menpekoa izanen da, haren Norberaren Autonomiarako eta menpekotasun-egoeran dauden Pertsonen Arretarako Programaren barruan.

Gizarteratzea

70. 2018-2021 epealdirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoaren ezarpena sustatuko dugu, eta Nafarroan Gizarteratzearen aldeko eta Pobreziaren aurkako Hitzarmen handi bat ahalbidetuko dugu, kontsentsu zabala izanen duena arlo politikoan eta herritarrengan.

Planak bitarteko eta baliabide nahikoa izan behar du, inplementatua izateko.

Haren ebaluazioa egiteko aintzat hartuko dira gaiarekin harremana duten alde guztiak (administrazioa, gizarteko entitateak eta pertsona onuradunak), 2022-2025 epealdirako Plan estrategiko berria osatuko da 2022. urtean zehar.

71. Beharrezkoa denean, lan-gizarteratzerako laguntza sozialeko mekanismoak eta ibilbideak aintzat hartuko dituen diru-sarrerarako berme-sistemaren defentsa. Diru-sarreraren berme-sistema berezko eta orokorraren prestazio-multzoari koherentziari eman. Hura ebaluatu ondoren beharrezkoa balitz, berriz eratu Ezohiko Laguntzak eta Larrialdietarako Laguntzak.

72. Bermatutako Errenta eredia egonkortu eta gizarte-babeserako eskaintzen dituen aukerak indartu. Zentzu horretan, egitekoetako bat izanen da

enplegurako pizgarriei buruz legedian aurreikusitakoa betetzea eta, zehazkiago, Bermatutako Errentaren beraren atalasearen gainean doi-doi dauden eta besteren kontura lan egiten duten pertsonen lan-errentei ezarritako kenkari fiskalak.

73. Diru-sarrerak bermatzeko sisteman kenkari fiskalen eredia ezartzeko aukera aztertu.

74. Gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonen enplegarritasuna handitzeko neurriak sustatu, hala nola baliabideak ezartzea lana lortu aitzineko egoeran dauden pertsonen gaitasuna handitzeko, edo kualifikazio profesionalen sistemara egokitutako formaziorako sarbidea bermatzea, plaza-erreserben edota beken bitartez.

Lan-aitzineko esparrua, kulturartekotasunarena eta laguntzarena indartu beharra dago.

75. Enpleguaren eta gizarte-zerbitzuen arteko aktibazio-politiken kudeaketarako eredu integratua sustatu. Zehazkiago, Tuteran eta Burundako eskualdean gauzatutako ERSISI Proiektuaren emaitzak baloratu, eta mahai gainean jarri bai hark aitzina jarraitzeko aukera bai beste lurralde batzuetara eramatekoa.

76. Aktibazio-programak egokitu gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri.

77. Berariazko baliabideak sustatu, hala nola Babestutako Enplegu Soziala, lan-aitzineko baliabideak, eta baliabide okupazionalak.

78. Pobrezia Energetikoa jasateko arrisku handiena duten giza taldeak eta pertsonak babestuko dituen Lege bat onartu, enpresek hornidura etetea eragozteko xedez.

79. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren esku-hartzerako eredu berriari eutsi eta sakontzea, OGZekin elkarlanean, lan-bizitza osoan zehar formazioa eta lan-orientabidea eskaini behar dituen arreta integralean oinarrituta, modu proaktiboan eta pertsonalizatuan, eta nagusiki beharizan bereziak dituzten kolektiboek begira. Arreta horrek lagundu egin behar du enplegua sortzen eta enpresak garatzen, baita Ekonomia Sozialaren arlokoak ere.

80. Pertsona migratzaileei, eta batez ere ahulezia-egoeran handiengan daudenei, erabateko harrera egiteko protokoloa, bere barnean hartzen duena edozein arlotan eskura ditzaketen zerbitzu eta prestazioei buruzko informaziora jasotzea.

81. Pertsona errefuxiatuentzako foru-protokoloari eustea eta hobetzea.

82. Gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonen etxebizitzari eusteko neurriak abiaraziko ditugu, bereziki landuz gizarte-laguntzan oinarrituriko berariazko neurriak.

Lankidetzak

83. Garapenerako Laguntza Ofizialerako (GLO) aurrekontua handitzea, 2020rako gutxienez %0,4 ezarriko, 2022rako %0,5 eta 2023rako %0,6, ahal den bezain laster, eta edozein kasutan 2030 baino lehenago, %0,7ra iristeko xedearekin betiere.
84. III Plan Zuzentzailea onartu eta beteko dela ziurtatu, aipaturako baldintzetan, haren garapenerako baliabide nahikoa emanez, eta beteko dela bermatzeko hainbat urtetarako plangintzak eginez.
85. Ekintza Humanitarioari baliabide nahikoak eta bitarteko egokiak eman, prebentziora, arintzera, konponketara eta berreraikitzen bideratutako aldiroko deialdiekin, Ekintza Humanitarioa esaten zaien egoerentzako, eta ez larrialdientzako. Funtsekin ez dira inola ere Nafarroan errefuxiatutako pertsonentzat erabiliko.
86. Gizarte Eraldatzeko eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GEHGH) sustatu, garapenerako Hezkuntza Estrategia berria garatu.
87. Saharar herriarekiko elkartasun-, senidetasun- eta lankidetzakonpromisoa indartu.
88. Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Agentzia bat sortzeko aukera aztertu, Lankidetzarako III Plan Zuzentzailearen esparruan eta GKEen kontsentsuarekin.

Gazteak

89. Araudia, eta bereziki Gazteriaren Foru Legea (11/2011, apirilaren 1koa), garatu, eguneratu, eta Nafarroako gazteen eta lurraldeen errealitate asoziatibo berrira egokitu, parte-hartzea eta asoziazionismoa bermatuz maila eta esparru geografiko orotan, eta Gazteriaren Tokiko Kontseiluak erregulatuz. Era berean, gazte-susperraldirako berariazko programak sortuko dira.
90. 2020-2024 epealdirako gazteen enplegurako eta ekintzailentzarako estrategia sortu eta abiarazi. NEZekin batera, gazte-enplegurako estrategiak osatu, lan-arloan belunaldien arteko ordezkapena errazteko programak barne.

91. Azken 24 hilabeteetan gutxienez 6 Foru Komunitatetik kanpo eman dituzten gazteak itzuli ahal izateko plana.
92. Alokairu-eredua bultzatu, erosteko aukera emanik, emantzipatzeko eta bizi-aro berria hasteko garaian. Etxebizitza partekatze beldunaldi-arte programa sustatu, jabe helduekin, baliabide ekonomiko urriak dituzten unibertsitateko edo goi-mailako LHko ikasleentzat, gastuak eta beldunaldien arteko bizikidetzabizipena partekatze aldera. 35 urtera bitarteko gazteek alokatu ahal izateko laguntza-programa areagotzea, pixkanaka-pixkanaka, legegintzaldian zehar.
93. Gazteek parte-hartzeko berariazko programak sortuko dira.
94. Sexu-eskubideen (sexu-askatasuna, sexu-autonomia, sexu-pribatasuna, sexu-ekitate, sexu-plazera, sexu-adierazpide emozionala, sexu-elkartze askea, sexu-osasunari arreta, etab.) defentsa, sustapena, errespetua, aitortza eta zabalkundea areagotzea, kanpainen bitartez bultzatuz sexu-berdintasunaren eta sexu-ekitatearen baloreak.
95. Beste departamentu batzuekin koordinatuta eta guhurrek sortutako programen bidez, ohitura osasungarriak sustatu eta arrisku-jokabideei (sexualak, elikadura txarrekoak, kontsumoak, adikzioak, ludopatiak, drogamenpekotasunak, indarkeria, intolerantzia, xenofobia...) aurrea hartuko diegu, segurtasun juridiko eta finantzarioaren irizpideei men eginez.
96. Udal Entitateekin lankidetzara, gazteriaz den bezainbatean; gazteentzako programak eta planak, gazteentzako informazio-sarea eta gazteentzako guneen hornidura modernizatuz eta eguneratuz. Lan bateratua eta koordinatua egin Nafarroako gazte-arloko teknikariekin eta gazteekin lan egiten duten bestelako eragileekin.
97. Gazteen eta arloko elkarrean parte-hartzeaz eta Gobernuaren barnean lan transbertsala eginez, 2020-2024 epealdirako III Gazteria Plana osatu eta exekutatu dugu, gazteen beharrei erantzuteko.
98. Gazteen mugikortasuna sustatu boluntariotza sozialeko programen bidez, eta 2030 Agendaren xedeekin konpromisoa harturik.
99. Hezkuntza Ez Formalari laguntza eta bultzada, Gazteentzako Jardueren Nafarroako Eskolaren (GJNE) eskaintzaren bidez, eta heziketari laguntzeko programak. Gazteen ekintzailtzarako trebetasun eta gaitasunen garapena, ekonomia sozialerako pizgarriak emanez.

100. Gazteriaren Behatokia indartu gazte-plangintzak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko, eta Udal Entitateei beren gazte-politiketan erabiltzeko datuak eman ahal izateko.
101. Gazteen sormena sustatzeko programetarako baliabideak handitu, sormen-industria berrien esparruan.
102. Gazte-elkarteentzat eta Nafarroako Gazte Kontseiluarentzat topagune-eremua eratu, parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzeko.
103. Gazteen arloan aire zabalean egindako jardueren eta titulazioen araudia egokitu.
104. Gazte Txartela programaren bidez, gizarteratzea bermatu eta kulturara, aisialdi aktibora eta ariketa fisikora iristeko aukerak eman, Nafarroako kultur eta lurralde-aniztasuna aintzat harturik.
105. Ingurumenaren eta lurraldearen alorretan gazteengan sentiberatasuna piztuko duten programak abiarazi: jasangarritasuna, belaunaldi arteko kontsumo kontzientea, lurraldearekiko atxikimendua, landa-eremuen despopulatzea eta elkartasuna. 2030 Agendarekin konprometituta.
106. Bakea, bizikidetzeta eta bazterketa-arriskua duten gazteen gizarteratzea sustatuko duten gazteentzako programak garatu.
107. Garraio-txartel bakarra martxan jartzeko lan egin, mugikortasun jasangarria eta lurralde-kohesioa indartze aldera.
108. Gobernuaren gazte-guneetan (Fuerte del Príncipe aterpetxea, aterpeak...) erreformei eta hobekuntzei ekin, irisgarritasuna eta gehiago erabiltzea bermatzeko.
109. Bekadun pertsonen eta ikertzaile gazteen lan- eta gizarte-eskubideen aitortza sustatu; praktika-kontratuatarako LGSrekin parekatutako ordaina.
110. Unibertsitateko praktikak protokolo bidez arautzera eta gainbegiratzera bultzatu, curriculumetik kanpokoei arreta berezia eskainirik, baldintza prekarioak eta lanpostuen ordezkapena eragozteko.
111. Garatu eta koordinatu irisgarritasun unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean jasotako desgaitasun- eta gazteria-politika publikoak, hala nola 2006ko Desgaitasuna duten Pertsonen eskubideen

Nazioarteko Hitzarmenekoak, desgaitasuna duten gazteei ikusgarritasuna emateko; ahalduntzea eta independentziarako autonomia sustatu; desgaitasunen bat duten gazteen gizarteratzea sustatu hezkuntzan, lan-munduan, teknologia berrietan, nazioartekotzean, kulturaren, aisian eta kirolean, etab.; desgaitasuna duten gazteei buruzko gizarte-ikerketak eta estatistikak egiten laguntzea.

112. Gazteengan berdintasun-printzipioa transbertsal bihurtu, genero-berdintasunaren ikuspegia gehitu dadin politika publiko ororen diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan, maila eta etapa guztietan.

113. Komunikazio barneratzaile ez-sexista erabili, genero-estereotipoetan oinarrituriko eredurik erabili gabe. Hizkera horrek Administrazioaren arlo orotan izanen du tokia, hala nola zuzenean edo bestelako bitartez ekoizten dituen agiri, formulario, inprimaki edo euskarrietan.

Etxebizitza

114. 2018-2028 epealdirako Nafarroako Etxebizitza Plana garatu eta inplementatu, lehentasun nagusitzat birgaitzea eta alokairu soziala mantendurik.

115. **Etxebizitza-parke habitagarri era irisgarria sustatu.**

1.1. Birgaitzerako laguntza-sistema berraztertu, lehentasuna eman ez irisgarritasunari energia-eraginkortasunari.

Lehentasuna eman irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren alorretan ekiteari:

- Irisgarritasunerako laguntzak handitu.
- Energia-eraginkortasunerako laguntzak handitu.

Laguntzak jasotzeko baldintzak eta kopuruak berraztertu, honakoen arabera:

- Familia bakoitzean diru-sarrreak dituzten pertsonen kopurua
- Bizikidetzaren unitate kontzeptuaren berrazterketa
- Haztatutako familia-errentaren arabera diruz lagundutako portzentajeak hobetu.

Errenta baxuenei ematen zaizkien laguntzak handitu (bazterketa-egoeran dauden familia ugari dituzten eraikinak birgaitzen direla bermatzeko),

Birgaitzeko laguntzak berraztertu, landa-eremuaren errealitatera egokitzeko.

1.2. Eraikinen ebaluazio-txostenak egiten direla sustatu.

1.3. Jabe-komunitateetan birgaitze-ekintzen kudeaketari lagundu:

* Finka-administratzaileek Administrazioen eta bizilagun-komunitateen artean egiten duten bitartekaritza-rola indartu,

* Bitarteko ekonomiko eta materialak eman zorro-bermeko finantza-tresna bat ezartzeko, zeinak jabe-komunitateei finantzazioa lortzea erraztuko baitien irisgarritasunaren edota energia-eraginkortasunaren alorretan jardutekotan.

* Irisgarritasun-funts bat sortzeko aukera aztertu: laguntza bereziak emateko programa, eta baimendutako izapidetzea beharizan bereziak dituzten komunitateentzat eta pertsona kalteberenentzat, Foru Komunitateko Administrazioaren alde Jabegoaren Erregistroan zama bat erregistratzeko aukera eta guzti.

* Alokairuko etxebizitza babestuen parke publikoa birgaitzeko berariazko programa bat sortu.

* Etxebizitzak birgaitzeari laguntzeko formula berriak aztertu, batez ere landa-eremuan.

1.4. Hiria berrosatzeko plana sustatu.

* Bizitegi-lurzorua aztertu, ubanizagarria edo jandaik eraikitakoa izan, garapen berrien sakabanaketa geografikoa (erdigunetik urruntzea) saihestuz, hiri trinko eta jasangarria izateko xedez.

* Eremu degradatuak edo zaurgarriak identifikatzea ahalbidetuko duen geografia-diagnostikoa egin.

* Hiri-ingurunea hobetzeko eta espazioak berreskuratzeko ekintzak sustatu.

* Gabeziak dituzten auzoetan gizarte-kohesioa sustatuko duten jarduera integralak egin: egoera kaskarrean dauden etxebizitzak, ekipamendu eta zerbitzurik eza, etab.

* Hiria berrosatzeko estrategietan aholkularitza eta laguntza-taldeentzat babesa eta orokortzea.

1.5. Habitagarritasunari buruzko Foru Dekretua aldatu, bereziki birgaitze-politikei dagokienez, eraikitze-guneak neurri handiagoan egokitzeko pertsonen, familien eta gizartearen beharrei.

1.6. Etxebizitzen arloan egiten diren jardueretan sustatu IKGE (ia kontsumorik gabeko eraikinak) irizpideak sustatu.

1.7. Etxebizitza-parke nahikoa sustatu.

2.1. NASUVINSAk egiturazko erantzun publikoak emanen ditu alokairu eskuragarriaren eskaintza handitzeko, tanteo- eta erretrakto-eskubideen bitartez, eta egiaztatutako eskaera duten udaletan babestutako alokairuaren sustapen berriak bultzatuz.

2.2. Beste entitateekin lankidetzak-hitzarmenak sustatu, alokairuzko etxebizitza-parkearen eskaintza handitzeko.

2.2.1. Udal-entitateekin hitzarmenak, babestutako etxebizitzak eraiki ahal izateko jabego publikoko orubeak izateko xedez.

2.2.2. Sustatzaile pribatuekin hitzarmenak, alokairuzko etxebizitzara bideratzeko orubeak eta inbertsioa eskuratzeko xedez.

2.3. Araudia egokitu, egonkortutako hiri-lurzoruan egiten diren sustapen berrietan derrigorrezkoa izan dadin etxebizitza eskuragarria sartzea (kolektiboaren parte-hartzea eraikin berriaren plusbalioetan, aurrez eraikia izan zen lurzoruan).

2.4. Etxabeak edo lolak hutsak etxebizitza bihurtzea sustatu.

2.5. Bizitoki-eredu berrietarako proiektu berritzaileei laguntza eman; lankidetzazko etxebizitzak, cohousing,...

2.6. Utzitako erabilera duten etxebizitza-kooperatibak sustatu.

2.7. Dagokion araudiaren aldaketa bultzatu etxebizitza handien zatikatzea sustatzeko, etxebizitza-eskaintza handitzeko xedez, hirigintza-arloan eskuduntza duen departamentuarekin elkarlanean.

2.8. Etxebizitza-eskubide subjektiboaren aitortzan aitzinerako urratsak egin, kolektibo baztertuenean etxebizitza eskuratzeko eta gazteak emantzipatzea ahalbidetzeko.

2.9. Barneratze sozialeko etxebizitza-programa indartu, bereziki alokairuzko etxebizitzari dagokionez, beharizan berrietara egokituz.

2.10. Belaunaldi-arteko bizitoki-programa pilotu bat ezarri.

2.11. Etxerik gabeko pertsonentzat bizitoki-ekimenak areagotu, Housing First programaren bidez.

- 2.12. Etxebizitza Foru Funtza mantendu, larrialdi sozialeko edo etxebizitza-gabeziako egoerei aurre egiteko (bazterketa-egoeran dauden emakumeak, terapia-komunitateetatik ateratzen direnei laguntza...).
- 2.13. Bankuekiko bitartekaritza eta negoziazioa sustatu, etxegabetutako pertsonen egoerei heltzeko.
116. Nafarroako babestutako etxebizitzaren kudeaketa hobetu eta dauden baliabideak optimizatu.
- 3.1. Nafarroan babestutako etxebizitza eskatzen dutenen errolda eguneratu eta indartu, babestutako etxebizitzak esleitzeko tresna gisa eta informazio-funtz gisa.
- 3.2. Etxebizitzak emateko prozedurak berraztertu, eskariaren aniztasunari erantzuteko eta gizarteratze-irizpideak erabiltzeko; era berean, alokairurako berariazko planak egin zenbait kolektiborentzat: gazteak, adinekoak, guraso bakarreko familiak eta bestelako bizikidetzak-unitateak.
- 3.3. Arazo espezifikoak dituzten eta babestutako etxebizitza eskuratu duten herritarrei laguntza integrala emanen zaiela bermatu, NASUVINSAn hezitzaileen eta gizarte-langileen taldea handitu, eta babestutako etxeetan bizi direnen eskubideak eta betebeharrak sendotu.
- 3.4. Botere judiziala-Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzak-hitzarmena berriz formulatu, botatzea ebatzi aurretik egoera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko, badaezpada etxebizitza-larrialdietako irtenbiderik balegokio.
- 3.5. Eraikuntza jasangarriaren eremuan eta eraikuntza-sektoreko industrializazio-prozesuetan berrikuntza sustatu: IKGE edo etxebizitza pasiboko eraikinen garapena, bertoko eta egiaztatutako zura erabiltzea eraikuntzako egiturazko osagai gisa, biomasa gehitzea bizitoki-parkearen iturri alternatibo modura, eraikuntza-katearen prozesu osoan Bolding Information Modeling (BIM) delakoa ezartzea.
117. Etxebizitzaren funtzio soziala bermatzeko eskubidean aitzina egin.
- 4.1. Etxebizitza hutsak alokairura eraman, kokapena ugaritzea ahalbidetuz.
- * Etxebizitza anitzen jabeen errolda bat sortu.
- * NASUVINSARI giza baliabideak eman hutsik dauden etxebizitzak detektatzeko, alokairupeko etxebizitza-eskaera egiaztatu dagoen inguruetan. Etxebizitza hutsari buruzko foru legea bete.

* Administrazio publikoarenak diren okupatu gabeko etxebizitzak birgaitzea eta alokatzea sustatu.

* Udalekin lankidetzak etxebizitza hutsak atzemateko.

4.2. Alokairu Funtz Publikoaren baldintzak hobetu eta etxebizitzak erakartzeko kanpainak sustatu, funtsean eskuragarri dauden etxebizitzaren kopurua handitze aldera, landa-eremuei arreta berezia eman.

4.3. Lankidetzak publiko-pribatua bultzatu, kudeaketa publikoko alokairuzko etxebizitza-parkea sustatzeari dagokionez.

118. Salerosketako Babes Ofizialeko Etxebizitzak bete behar duen rola errebisatu, kalifikazio finkoaren bideragarritasuna aztertuz jaso litzaketen laguntza publikoekin batera, haren funtzio soziala indartu eta diru-sarrerak baxu-ertainak dituzten zenbait sektore sozialei etxebizitza-eskubidea bermatzeko xedez.

119. Birgaitzerako jasotako diru-laguntza babestuengatik zerga ordaintzeaz salbuetsi, eman duen erakundea edozein dela ere (Nafarroako Gobernua, Udalak, IDEA, etab.).

120. Alokairuen Jasangarritasun Aurkibidea (AJA) sortu:

- Hobariak eman errenta AJAren azpitik duten etxebizitzaren alokairuei, eta zuzeneko zergetan (PFEZ) zigortuz gainera daudenak
- Hobariak eman etxebizitza beraren kontratu berria lehengo errentari eusteari, eta errenta hori handitzea zigortu
- Jabe-komunitatearen bitartez birgaitzerako diru-laguntza jaso duten etxebizitza AJAren gainera ez alokatzerara behartu

121. LFOTU aldatu, Lurzoru Publikoko Foru Bankuko lursailak, gehieneko denbora-aldi batez, gainazal-eskubide gisa uztea ahalbidetuz, betiere alokairu sozialeko etxebizitzari loturik edota erabilerarako utzirik edo Cohousing eran.

122. Alokairuko sustapenei diru-laguntzak emateko baldintza izanen da etxebizitza horiek saltzekotan, ez saltzea Nafarroako Foru Komunitatearen berezko egiturarik (bulegoak edo langileak) ez duten funts edo enpresei.

123. Estatuko administrazioarekin batera elkarlanerako mahai bat sortzea bultzatu, estatuaren eskumenekoak diren etxebizitzari lotutako gaietarako (adibidez, birgaitzerako BEZ murriztua).

3.4.- KULTURA ETA KIROLA

Kultura

1. Kultur Eskubideen Foru Legea garatu eta inplementatu. Hura betetzeko beharrezkoa den finantzazio publiko nahikoa ziurtatu.
2. Finkatu gobernantza-eredu berria, profesionaleri eta herritarrei aukera emanen diena kultur politiken eta kultur garapenaren definizioan, garapenean eta ebaluazioan parte hartzeko.
3. Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa, eta Kultura Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzuen ekintza-planak garatu eta ebaluatu.
4. Kultur politikarako aurrekontu-hornidura %1,5 errealerara (Europako batez bestekoa) iristeko lan egin. Kenkari fiskalak eta laguntzak ezarriko ditugu sektore sortu berrientzat edo kultur arloko ekintzaileentzat.
5. Nafarroako kultur ondarea. Ondasun higikor eta higiezinen zaharberritze- eta kontserbazio-lanetarako irizpidea ezarri, oinarritzat harturik Vianako Printzea Erakundeko Ondare Historikoko Zerbitzuaren txosten teknikoetan oinarriturik, lan horiek premiaren edo interesaren arabera ordenatuko dituztenak. Kultur ondareari balioa ematea eta zabaltzea sustatu.
6. Museotarako inbertsio-partidak bideratu, guneak egokitu eta behar bezalako kontserbazioa ziurtatzeko (argiztapena, tenperatura, hezetasuna), eta energia aurrezteko eta guneak jasangarriak izateko metodologia berrietara egokitzeko.
7. Kultur sektoreei balioa emateko estrategia globala garatu eta abiarazi, xede bikoitzarekin: Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egin, kulturaren eta sormenaren industriei erabateko laguntza emanez; sektoreko lanpostuen kopurua eta kalitatea handitu, kultur ekintzaileen lana sustatuz.
8. Aurrekontu bidezko laguntza eman Udal Entitateei, egiten duten lurraldearen sustapen eta dinamizazio soziokulturala bultzatzeko.
9. Euskara sustatu kultur adierazpideetan. Euskarari lotutako arte-sorkuntza berritzailea bultzatu, hala nola formazioa, ikerkuntza, ekoizpena, hedapena eta bitartekaritza.
10. Kultur Eragileen profesionalizatzeari aitzinako urratsak egin, berezko lanpostuen aitortza bermatzeko eta kultur eragileen trebakuntzarako eta espezializaziorako neurriak sustatuz, kultur sektoreen garapen jasangarria bermatzeko xedez.

11. Navarra Film Comission bidezko elkarlana, kultur eragileak aintzat harturik, zinemarako espazio gisa Nafarroak ematen dituen aukera oro hein handiagoan indartzeko, plan bereziak sortuz jaialdiak egonkortzeko eta gazteen dohainak baloratzeko eta saritzeko, ez soilik film luzeak aurkeztuz, baizik eta, halaber, zinema ahalbidetzen duten diziplina teknikoen alorrean ere.
12. Liburutegiak birdiseinatu eta sektoreka antolatu, dauden baliabideak aprobetxatuz, zeintzuek tokia eman behar dieten ikasleen beharrei, hala nola irakurmen-aisialdiari eta harekin zerikusia duten kolektiboek.
13. Artisten Estatutua aplikatu, kulturaren sektorea gaur egun jasaten ari den urritasun-egoera hobetzeko tresna gisa.
14. Oso gutxi edo batere erabiltzen ez diren jabetza publikoko guneetan ekimen artistikoak eta kulturalak gauza daitezela bultzatu, kudeaketa-eredu berritzaileak erabiliz: mistoa, kudeaketa partekatua, autogestioa.
15. Nafarroako Gobernuaren departamenduen arteko lankidetzaren esparru bat proposatu, politika transbertsaletan aitzina egin eta sakontzeko: indarkeriari zilegitasuna kentzea xede politikoak lortzeko tresna gisa, kultur aniztasuna, jazarpena, etab. Bitartekaritzako eta parte-hartzezko prozesuak antolatu, arte-diziplinen bidez.
16. Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseiluaren egitekoek, osaketaz eta funtzionamenduz Arautegi berria osatu. Arautegi horrek genero-parekidetasuna bermatu beharko du, bai eta ere udal eta kultur entitateen, Gazteria Kontseiluaren eta ospe handiko pertsonen presentzia plurala, Kultur Eskubideen Foru Legearen 35. artikulua adierazten duen eran.
17. NUKFren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Koordinazio Foroa finkatu. Landeremua kultur eta soren-gunea izan dadin pizgarriak eman, haren beharrak eta aukerak atzemanez.
18. Kulturaren hartzaileak, ikusleak eta sektoreak ezagutzeko lan egin, Nafarroako Kulturaren Behatokiaren eta kultur informazioko sistemen bidez. Nafarroako kultur guneen geolokalizazioa sustatu, kultur mapak sortuz.
19. Kultur elementuen zabalkunderako eta balioespenerako lanabes transbertsalak sustatu; esaterako, Nafarroako Kulturaren Atari Digitala eta sormenezko ekonomiarako Nafarroako Kulturaren Kontu Satelitea.
20. Kulturaren eta sormenaren ekosistemei lagundu, hibridazioa, eduki berrien sorrera eta berrikuntza-laboretegiak ahalbidetu ditzaten.

Kirola

21. Balore Plana sustatu, bizitzan bezala kirolean, ikastetxeetara eramanez kirol-baloreen alorreko jarduera hezitzaileak, eta Kirol-gatazketan bitartekaritza egiteko bulegoa indartuz.

Ikaskuntza-plan eragilea bultzatu eskola-adineko kirolean; askotarikoa, diziplina antzekoa, hezitzailea, adin txikietan espezializatorik gabekoa, ondoren kirol-diziplinen artean hautatu ahal izateko. NKJak modernizatu eta handitu.

Gobernuaren beste unitate batzuekin batera, abian jarri Nafarroan ariketa fisikoa eta osasuna sustatzeko Plana, haurren lודיתasunari berebiziko arreta eskainiz.

22. Kirol Errendimenduko Plana garatuko dugu, CEIMDk zeregin garrantzitsua izanen duenari, gure kirolariei beren ibilbide osoan laguntzeko dirua emanez, batez ere dohain handiko gazteei eta desgaitasuna duten kirolariei. Bekak sustatu eta ugaritu, hezkuntza eta kirola uztartu ahal izateko.

23. Instalazioen Plan Zuzendari bat egin 2020an, 4 urteko epealdirako aurrekontua emanez. Eraikin berriak ez ezik, plan horrek aurreikusitako behar dituen berregokitzapenak, indarrean dauden araudiei egokitzeak, homologazioa, irisgarritasuna eta ezaugarri bereziak dituzten instalazioak. Diru-laguntzen deialdiak egiteko aurrekontuak ezarri, kirol-entitateetan eta udal-entitateetan instalazioak eraikitze eta hobetzeko.

24. Miguel Indurain Fundazioaren rola areagotu, formazio-eskaintza arautua handitzeko eta kirolariei, talde teknikoei eta epaileei laguntza emateko behar duen azpiegitura emanez. Gainera, lankidetzaren eskainiko zaie "Nafarroa Marka" indartzen duten proiektu estrategikoei.

25. Emakumezkoen kirola indartu eta babestu orobat. NOBek ezartzen dituen eta talde mistoak dituzten kirol-diziplina berriei bultzada eta egokitzea. Emakumeen ordezkaritza txikiegia den diziplinetan emakume-talde berrien sorrera sustatu, eta kirol-harrobietan gizon zein emakumezkoen diziplinak aintzat hartu.

26. Kirolean berdintasuna eta LGTBI+ kolektiboa ikusarazteko Eskola-planak sortuko ditugu, Hezkuntza eta Berdintasun departamentuekin lankidetzan.

27. NKGIk ez dezala lagundu diruz, ez beste inola, apustu-enpresek finantzaturako edota babestutako kirol-ekitaldirik,

28. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Nafarroako Foru Lege berri bati ekin, XXI. mendeko gizarteak eskatzen dituen erronkak barne hartuta, kirolaren eta ariketa fisikoaren sektorearen parte-hartzeaz.
29. Nafarroako kirol-lanbideen sarbideari eta gauzatzeari buruzko 18/2019 Foru Legea ezagutarazi, eta haren araudia garatu.
30. Kirol-sistema federatiboari eta asoziatiboari laguntza eman, hainbat urterako diru-laguntza azkarren sistema baten bidez. Gutxik egiten dituzten kirolei eta Nafarroako kirol tradizionalei bultzada eman.
31. Diru-laguntzen bitartez pizgarriak eman Udal Entitateei, proiektu estrategikoetan oinarrituriko kirol-egitarauak garatzeko.
32. Kirol-arloko boluntariorik lagundu, baliabide ekonomikoak, materialak eta formatiboak emanik.
33. NKGik interes orokorreko izendatzen dituen kirol-ekitaldiei kirol-babeserako pizgarriak eman.
34. Pizgarriak eman herritarrek kirol-instalazioetara joatea errazten duten programak edo kudeaketa-ildoak sortzeko, berariazko hitzarmenen edota kirol-txartel bakarraren bidez.

3.5.- ENPLEGUA ETA AURRERABIDE EKONOMIKOA

Lehiakortasunari eta eraldatze digitalari bultzada

1. 2018. urtearen bukaeran "Especializazio Adimentsurako Estrategiaren" Zuzendaritza Batzordeari aurkeztutako berrikuntza digitalaren gunea sortzeko proiektua garatu eta inplementatu. Gune horrek ikertzaileak, I+G+b eragileak, oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak eta ikerkuntza-azpiegiturak hartuko ditu, eta ekoizpen-sistemaren industriak nahitaezkoa duen eraldatzea ahalbidetuko du, ekintzaitza sustatzeaz gain.
2. Eraldatze Digitalarekin zerikusia duten jarduera ororen jarraitzea eta koordinazioa, ahaleginak bateratzeko eta Nafarroa lehiakorra izateko baldintza hoberenetan kokatzeko: Administrazioan, enpresetan, ikastetxeetan eta bestelako eragileetan gertatzen diren eraldaketen analisia, aurrerapausoak erkatuz lurralde aurreratuenetan ematen ari direnekin.

3. Jarduera legegileaz den bezainbatean, bilatu egingen da I+G+b arloan egindako inbertsioak ez daitezela bateraezinak izan baliabide natural eta energetikoen kontsumoa eta CO2 igorpenak murrizteko eta ingurumena zaintzeko konpromisoarekin.
4. Sektore publikoan eutsi egingen diogu I+G+b-ren sustatu eta estrategikoki koordinatzeko zereginari, arriskuak bereganatzeko gai den eragilea izan dadin, baina baita ere etekinak lortzeko eta I+G+b kalitatezko eta balio sozialeko enplegua sortzera bideratzeko.
5. Nafarroaren garapenerako lehenetsuneko ardaztat joko dugu Eraldatze Digitala, enpresetan, administrazioan eta gizartean beharrezkoa den 'aldaketa kulturala' bultzatuz. Era horretan, bai arlo sozialean bai enpresenean aldaketa ahalbidetuko duten teknologiak geureganatuko ditugu: robotizazioa, nano-teknologia, big data, gauzen Interneteta... Haien ezarpena, formazioa eta garapena egiten laguntzeko lanabesak emanen dira, eta xede horrekin, gainera, ahalik eta komunikazio-azpiegiturarik sendoena eraikiko da Foru Komunitatean, lurralde osoan hedatuz banda zabala eta 5G estaldurarik handienaren aldeko apustua eginez. Eraldatze Digitalaren ezinbesteko fokuen barnean, "Nafarroako Eraldatze Digitala 2030" programa garatuko dugu, Nafarroako industria-sektoreak modernizatzeko eta dinamizatzeko. Programa hori, halaber, berme-zigilua izanen da hezkuntzan, administrazioan eta behin 2020rako epemuga duten planak gainditurik errealitate teknologikora egokitu beharko duten gizartearen beste hainbat arlotan eraldaketari laguntzeko.
6. Konfiantzan eta interesdun talde ororen arteko lankidetzan oinarrituriko enpresa-kultura sustatzeko ekintzak eramanen dira aitzina: enpresa-jabeak, langileak, hornitzaileak, bezeroak eta gizartea bera. Horien guztien bidezko interesak asebetetzea izanen da xedea; besteak beste, langileen osasuna babestea, lana eta familia uztartzea, ingurumenari begirunea eta kontsumitzaileen osasunari begirunea. Horretarako, funtsezkoa izanen da enpresen jabeek eta zuzendariak langileei begirako informazio-sistema egonkorra garatzea, konpainiaren ikuspegiari, estrategiari eta bilakabideari buruz, eta oinarri horretatik abiatuz, parte-hartezko kudeaketa- eta zuzendaritza-sistemak, lankidetzan, norberaren garapenean eta lortutako emaitzaren banaketa egokian oinarriturik.
7. "Nafarroako Zientzia eta Teknologia Plana"-ren esparruan, industria-jabegoa sustatzera bultzatu, sistemako eragile guztiek parte harturik, I+G sistemak ekoizitako berrikuntzek eman ditzaketen ekonomia-aukerak aprobetxatzeko egin beharreko ekintzak aurreikusiz.
8. "Nafarroako Zientzia eta Teknologia Plana"-ren esparruan, Nafarroan patenteak, bai nazionalak bi nazioartekoak, sortzearekin konpromisoa, haien hazkundera

sustatuz, duela zenbait urte lortu ziren gorenko emaitzetara iristeko. Hala, laguntza emanen zaio patenteak erregistratzeari, bai diruz, bai eskuduntzak sortuz, bai haiek izapidetuz Espainian, Europan eta munduan.

9. Nafar enpresen finantzazio-neurriak indartu, kreditu-lerroak sendotuz, abal publikoen programak definituz, eta proiektu estrategikoei babesa emanaz SODENAren eta Elkarrenganako Berme Sozietateen bidez.
10. Nafarroako enpresa-ehunean produktu berritzaileen garapena eta energiaren ikuspuntutik ekipamendu eraginkorrak bereganatzea bultzatzen duten erosketak publikoko programak sustatu.
11. S3ren esparruan lurraldea lehiakorra izateko estrategikotzat jotzen diren inbertsioen aldeko apustua, eta bereziki zenbait arlotan: nazioartekotzea, ikerkuntza eta garapena.
12. Nafarroako industrialdeetara enpresak erakartzeko neurriak dituen estrategia integralari bultzada, batez ere babes txikiagoa edo enplegua sortzeko premia handiagoa duten eskualdeetara, lurralde-kohesioko politikarekin eta despopulatzearen aurkako borrokarekin bat eginez.
13. NASUVINSA eta SODENAren bidez, aholkularitza integrala eskainiko dugu enpresak lokalizatzeari dagokionez. Enpresei orientabidea emanen diegu ezarpenerako eta industria-zorurako diru-laguntzak izapidetzeko.

Enplegua, talentuaren kudeaketa y gizarte-elkarrizketa

14. Eremu sozio-ekonomikoan, aitzina jarraitu akordioaren kulturen, itunetan, parte-hartzean eta elkarrizketan, erabakiak hartzeko garaian. Azken sasoiaren S3ren esparru estrategikoan egin izan den bezala, akordio estrategikoak sustatuko ditugu Nafarroako Gobernuaren eta gizarte- eta enpresa-entitateen, unibertsitateen, teknologia-guneen eta enpresen artean, xedea izanen delarik hazkunde-eredu jasangarrirako eta garapen sozialerako eredu bat garatzea, helize laukoitza osatzen dutenen artean kontsentsuan oinarriturik
15. Enplegu-politika aktiboak eta "Nafarroako Espezializazio Adimentsuko S3 Estrategia" ildo berean jarri, lana duten langileei, langabetuei eta bereziki gazteei begira.
16. Talentuaren Plan Estrategikoa bultzatu, abiapuntutzat harturik epe ertain eta luzea izanen ditugu prestatutako pertsona-premiak, gure sektore

estrategikoetan bereziki, Nafarroak behar dituen giza baliabideak izanen dituela ahalik eta erarik hoberenean ziurtatzeko bideak definitze aldera.

17. "2017-2020rako Enplegu Politika Aktiboei buruzko Akordioa" inplementatzea bultzatu, eta 2021erako beste bat prestatu, emaitzak neurtu ondoren. Betiere genero-ikuspegia ezarriko da, baliabideak birbideratuz arreta pertsonalizatuagoa eskaintzeko, etengabeko formazioa bultzatuz; Nafarroako eskualdeen arteko desberdintasunak eta bakoitzaren ezaugarriak aintzat izanen ditugu.
18. Banakoei begirako plan bat inplementatu, gehienez ere 6 hilabeteko epean, langabezia dauden pertsona guztiei lan-merkatuan sartzea erraztuko dien orientabidea emateko.
19. Lan-orientabiderako lanabes informatikoak garatzen jarraitu, entitate kudeatzaile ororen parte-hartzeaz, banakako diagnostikoak egin eta ibilbideak diseinatzeko, jardueren jarraitzea egiteko eta gehitutako analisi estatistikoa egiteko.
20. Enplegu-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen elkarlana bultzatzen jarraitu, batez ere sektorerik ahulenean eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituztenekin; lehentasunezko arreta emanen zaie Bermatutako Errenta jasotzen duten eta lan egiteko gai diren pertsonen. Jarraitu birbideratze-protokoloak, elkarlanerakoak eta bi sistemen arteko informazio-jarioarenak garatzen.
21. Nafarroako Estatistika Institutuari eskatu gure Komunitateko lan-merkatuan dauden dinamiken, okupazioaren eta langabeziaren jarraitze estuagoa egitea, lurralde-ikuspegia ere areagotuz.
22. Neurri espezifikoaren sustapena areagotu lan-arloan aukera-berdintasuna emateko sektore ahulenei: gazteak, emakumeak, 45 urtetik gorakoak, langabezia denbora luzea daramatenak, desgaitasuna dutenak, migratzaileak eta bazterkeria-arriskua dutenak.
23. Egonkortasuna eman orientabide-, formazio- eta enplegua era aktiboan bilatzera bideratutako bestelako programei,
24. Behar adinako baliabideak eman NEZi, lan-merkatuarekin bitartekaritza areagotu dezan.
25. Enplegu Politika Aktiboak etengabe ebaluatzen sistema bat osatu, haien eraginkortasuna eta gastuarena optimizatzen, baita kontratazioarako ematen diren hobariena ere.

26. Estatuko Gobernuarekin lankidetzeta, jadanik onartuta dagoen Gazte Enplegurako 2019-2021 Talka Planean jasotako lehentasunak garatzeko. Gazteak ordainpeko praktikak egin ditzaten kontratazioa sustatu, haiek formatzeko xedez. Lan-eskarmeturik gabeko gazteentzako ekintza bereziak. Errelebo-kontratuen bitartez enpresen lantaldeak berritzeko pizgarriak.
27. Gizarteratze Enpresei buruzko Foru Dekretuaren moldaketa onartu, haiek kudeatzen dituzten gizarte-entitateekin adostuta.
28. Genero Arrakalen aurka borrokatzeko xedea gehitu NEZek lan-merkatuarekin egiten duen bitartekaritzan. Sustatu enpresentzako pizgarriak, sexuaren araberako lanaren banaketan oreka lortzea errazteko, banaketarako oinarrizko irizpide gisa.
29. Lan Osasunaren Nafarroako Kontseiluaren bidez, eta eragile ekonomiko eta sozial ororekin elkarlanean, lan-istripuen kopurua murrizteko borroka areagotu. Lan-osasunari eta prebentzioari dagozkien diru-partidak gotortu, "Nafarroan amiantoa ezabatzeko Plan Zuzendaria" progresiboki garatu.
30. Gurasoentzako baimenei buruzko arau guztiak berraztertuko ditugu, haien formulazioak duen neutraltasunaren ondorioz haietaz gozaten dutenak nagusiki emakumeak izatea eragozteko, urratsak eginez familia-ardura partekatuen kontzepturantz, lana eta familia uztartzeren kontzepturantz bainoago.
31. Gizarte- eta enpresa-eragileekin batera, eta gizarte-elkarrizketaren barnean, lan-ordutegi egokiak ezartzeko itun sozial eta ekonomikoa sustatuko dugu (adibidez, etxean lan egiteko aukera, "argi itzaliak" edo digitalki deskonektatzeko eskubidea), hala nola aparteko orduak mugatzea eta kontrolatzea, lanaren eta bizitza pertsonalaren eta familiarraren uztarketa hobetzeko.

Ekintzailletza

32. Ekintzaileentzako inguru erakargarriak sortzen jarraitu, bereziki langile autonomoentzat eta enpresa txikientzat, eta zehazkiago, berrikuntzaren arloan eta arlo digitalean hazteko gaitasuna izan lezaketen enpresen sorrera bultzatu. Era berean, garrantzia emanen zaio familia-enpresetan belaunaldien arteko erreleboa errazteari.
33. Enpresak sortzeko eta proiektu berriak abian jartzeko izapide administratiboak murriztu eta sinplifikatu. Aurrerapausoak egin Leihatila bakarria sortzeko, zeinak

nafar Administrazioen eta Nafarroako Gobernuaren Departamentuen jarduera koordinatuko baituen. Leihatila horretan, ekintzaileek laguntza osoa aurkituko dute gai legal eta fiskaletarako, bideragarritasun-analisietarako, negozio-planak egiteko, enpresa-kudeaketarako, finantza-gaietarako, patenteen babeserako, inbestitzaile eta diru-laguntzera iristeko, eta lege-izapideetarako. Era berean, hastapenetik emanen zaio laguntza kudeaketa komertzialari, hori baita oinarritzko zutabeetako bat ekimen ekintzaileak arrakasta izan dezan.

34. Navarra Tech Transfer funtsa osatu eta, beharrezkoa balitz, handitu. Funts horren xedea oinarri teknologikoko enpresa berriak Nafarroan ezartzea da. Erosketa publiko berritzaileerako aukerak aktibatu, ahal den neurrian ezarpen horiei laguntzeko. S3ren sektore estrategikoetako enpresen eraketarekin zerikusia duten berariazko finantza-funtsetan parte hartu.
35. SODENAREN bitartez, arriskuko kapital-funts estrategiko baten garapena gidatu, zeinaren xedea izanen baita Nafarroan funtsezkoak diren enpresen hazkundera eta errotzea. Horretarako baldintza izanen da funts horrek egiten dituen ekarpenak operazio finantzariotzat hartuak izatea, aurrekontuen egonkortasuna erregulatzeaz dagokionez,
36. Langile autonomo berrientzako laguntza- eta babes-programak garatzen jarraitzea eta sakontzea, negozioa sortu ondoko lehen hiru urteetan ekintzaileei ematen zaizkien berme- eta orientabide-mekanismoak eta zerbitzuak hobetuz. Inbestitzaile pribatuen eta *business angels* direlakoan sarea hedatzen saiatuko gara, elkarrekin lankidetzan jardutea eta digitalizaziora sarbidea izatea erraztuz.
37. Enpresetan eta ekintzaileengan berrikuntzaren kultura zabaldu, erronka berriak eskura jarri. Modu berean, berrikuntzaren kultura hori ikastetxeetan eta administrazioan ere sustatu beharra dago; horietan agertu behar dute etorkizuneko ideiek.

ETEak eta enonomia soziala

38. S3ren esparru estrategikoan Enpresa Txiki eta Ertainen (ETE) garrantzia nabarmendu eta sakondu.
39. ETEak nazioartekotzeko eta hazteko finantzazio-lanabes publikoen modernizatzea, diseinua eta koordinazioa hobetu: parte-hartezko maileguen bidez, eta arrisku-kapital publikoz, ETEak haztea eta dibertsifikatzea sustatu, epe luzean enplegua sortzea ekarriko duten proiektuetan.

40. Sektorekako multzoak edo enpresa-klusterrak sustatu, eskualdeetan industria-sektoreen lehiakortasuna handitzeko beharrezko elementuak diren neurrian. Finantza-babes esanguratsua eman horrelakoei, eta erabakietan parte har dezatela bultzatu.
41. Nafarroako familia-industria sustatu, bai irauteari bai sortzeari dagokionez, gizartearekiko konpromisoa izanen duten eta errotuta egonen diren ETEen industria-ehuna ziurtatzeko.
42. Ekonomia Sozialaren aldeko apustua. Sustapen-politikak, beharrezkoak direnak enpresa lehiakor, arduratsu eta jasangarriak sortzeko, non pertsoneri eta xede sozialei garrantzi handiagoa emanen baitzaien kapitalari baino. Ekonomia Sozialaren II Plana egin, zerikusia duten eragile guztiekin batera.
43. Kontratazio-klausula sozialak garatuko ditugu, kontratazio publikoko prozesuetan Ekonomia Sozialaren balio bereizgarria aintzat hartua izan dadila ahalbidetuko dutenak.
44. Ekonomia Sozialaren erakunde esanguratsuekin etengabeko elkarrizketarako mekanismoak sakondu, Plan Estrategikoa aintzat harturik.

Enpresen finantzazioa

45. ETE, mikro-ETE eta langile autonomoentzat finantzazio publiko lanabesak indarrean jarri. Lanabes horien bidez erraztu egingen da kreditu-lerroak jasotzea, zirkulatzaile-finantzaziora, hazkunde- eta nazioartekotze-prozesuetara, ekintzailatzara eta I+G+b-an inbertsioak egitera bideraturik.
46. Elkarrenganako berme-sistemari laguntza. SODENARI lagundu, enpresen garapenerako eta bultzadarako ezinbesteko tresna den heinean, aintzat hartuz etengabeko ebaluazioa eta haren prozeduren hobekuntza, analisirako, hautaketarako eta inbertsioak kudeatzeko.
47. Nafar enpresen nazioartekotze-estrategietarako aholkularitza legal eta finantzarioa sustatu, barne harturik nazioarteko organismoen aldetik finantzazioa jaso ahal izatea, hala nola EIB edo garapen-bankuak.
48. Nafarroako Gobernuaren eta finantzazio-entitateen (ICO, CERSA, COFIDES, etab.) artean existitzen diren akordioei eutsi.

Industria

49. Eraldatu Nafarroako industria-ehuna, autonomoengandik hasita enpresa handietaraino, ETEetatik eta merkataritza txikitik pasatuz, guztiz beharrezkoa den digitalizaziorantz jotzeko, Nafarroako 2020 Industria Planaren ildoetara jarraituz.
50. Epe luzeko estrategia diseinatu atzerriko enpresak erakartzeko, industria-oinarri sendoagoa eratzeko, enpresen kudeaketa hobetu eta dibertsifikatzeko, S3an bildutako sektoreei lehentasuna emanaz.
51. Ekoizpen-sarearen dibertsifikazioari lagundu etorkizuneko sektore berrietarantz, bereziki teknologia berriei, bio-zientziarekin eta ingurumenarekin lotutako jardueretarantz, S3aren esparruan betiere.
52. Teknologia-eduki handiagoko industrien, kanpoko eskariaren indar handiagoari etekina ateratzen diotenen, eta oinarri teknologikoko enpresa berrien garapenari lagundu.
53. Industria-arloko dohainen kudeaketari dagokionez, Lanbide Heziketa Dualaren garapena laguntzeko prozesuak abiarazi, industria-sektoreko lantaldeak gaztetzeko planak egin, eta deskokatze-mehatxuen aitzinean prebentziorako eta erantzuna emateko Arrisku Planak ondu.
54. Automobilgintzaren sektorean, jarraitu NAVEAC Proiektua sustatzen. SODENAREN bitartez, proiektu hori Nafarroaren industria-gaitasuna garatzen ari da, Ibilgailu Elektriko, Autonomo eta Konektatuaren (VEAC, gaztelaniazko sigletan) mugikortasun-eredu berri baten inguruan, Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren (S3) barnean, eta haren 24 Erronka Estrategikoetako lehena, hau da, ibilgailu elektrikoa sustatzea. Xedea da "automobilgintzako industria-sektorearen gaitasuna ibilgailu elektrikoa eta haren osagaiak garatzera bideratu, eta era berean mugikortasun-aukera berriak garatzea eta ezartzea Nafarroan (konektatutako ibilgailua, gidatze autonomoa,..)".

Halaber, automobilgintzako nafar enpresak egonkortzeko eta dibertsifikatzeko neurri aktiboak sustatu, produktuen, zerbitzuen eta merkatuen alorretan, Nafarroan sektorearen egitura eta jarduera indartzeko asmoz. Esandako guztia Industriekin, Teknologia Guneekin, Formazio Guneekin eta Gizarte Eragileekin lankidetzan gauzatuko da.

55. S3ren esparruan energia berriztagarrien eta energi baliabideen sektorea estrategikotzat jo izanarekin koherentziaz, sakondu energia berriztagarriak sustatzeko estrategian, energia-biltegiatzean, banatutako generazioan,

autokontsumoan, berrindustrializatzeko berdean eta ekonomia zirkularrean. Zehazki, ezinbestekoa izanen den energia-trantsizioa Nafarroarentzako aukera estrategikotzat hartu, eremu horretan maila globalean aitzindariak izateko apustua eginez, gure komunitatea Laborategi bihurtuz; ekimen berrien Living Lab bat, non I+G+b-aren bidez, teknologia digital berriaren bidez, eta esparru egokiak ezarri, energia-paradigmak dakartzan erronkei erantzutea ahalbidetuko duen, eta aldi berean ekonomia eta kalitatezko enplegua sortu.

56. Nekazaritzako elikagaien sektorea "Especializazio Adimentsuko Estrategia"-ren lehenetako giltzarrietako bat izatearen aldeko apustua egin. Sektore hori funtsezkoa da Nafarroako landa-eremuen garapen sozio-ekonomikorako, eta haien egiturazko ardatzetako bat.
57. Osasun-arloko ekosistema berritzailea sustatzen jarraitu, ezagutza hobeki iristeko merkatura, sektorearen esportazioak handitzeko, eta produktu berrien prototipoak sortu ahal izateko aukera izateko, era horretan osasun-sistema hobetuz. Nafarroa ikerkuntzan, garapenean eta pertsonalizatutako eta zehaztasunezko medikuntzan erreferente gisa agertzea da xedea, hala nola Foru Komunitatetik kanpoko gaixoak eta profesionalak erakartzeko gai diren especializatutako osasun-zerbitzuen eskaintzan, sendagaien, medikuntzarako gailuen eta osasun-teknologiaren ekoizpenean diharduen industria gazte eta berritzailea duena.

Gainera, eta sektorearen garrantzia dela eta, ekonomiaren sektore estrategikotzat dugu zaintzaren eta zaharkitze osasungarriaren ekonomia.

Azpiegiturak eta garraioa

58. Nafarroako Ubidearen 1. zatia zabalkunde eta 2.aren eraikuntza bukatu, edateko, industriarako eta ureztatzeko kontsumo-premia erreal eta neurtuak asetzeko, ur-baliabideen arabera.
59. Nafarroako Errepide Sarea kontserbatzera bideratutako baliabideak nabarmen handitu.
60. Parlamentuko indar guztien artean epe luzeko kontsentsua lortzeko lan egin, Nafarroako Errepide Sarerako finantzazio-segurtasuna bermatu ahal izateko, bai kontserbazio egokirako, bai hobetzeke dauden lan nagusiei ekiteko, bai sarea handitzeko, garapen ekonomikoa eta aldi berean kohesio soziala, eta lurraldearena, sustatzeko.
61. Analisi zorrotza egin Frankfurtetik loturaren maiztasuna handitze aldera eta Noain-Iruñeko aireportuan ibilbide berriak ezartze aldera konpainiekin

- negoziazioa bultzatzeko aukera aztertzeko. Erreferentziarako aireportuetarako autobus-linea erregularrak ezarri.
62. Errepide bidezko garraioaren sektorea Gure Komunitatean. Kasu batzuetan normalizatu egin diren jardura ez-legalen aurkako borroka. Konkurrentzia desleiala eragozteko kontrola areagotuko da eta, azken batean, sektore horretako elkarrekin lan egingo da haien lan estrategikoa errazteko.
63. Foru-lurralde osoan eta Nafarroako industrialde orotan banda zabala ezartzen bukatu, enpresa eta etxebizitza guztientzat 30 Mbp-ko gutxienezko abiadura ziurtatzeko, eta era berean, 2030ean eskakizun hori 100 Mbp-ra handitzeko azpiegiturak prestatu. Planifikatu, eta gutxika inplementatu, ahalmen handiko telekomunikazio-sarea.
64. Arrazoi ekonomikoengatik beren bizitokietan internetik ez duten pertsonentzako Laguntza Plana, bereziki hezkuntza-sasoian dauden ikasleak bizi diren etxeetan, arrakala digital soziala ezabatzen saiatzeko. Foru Gobernuarekin lan egiten duten hornitzaileekin, konektagarritasun-bonu merkeak edo murriztutako tarifak ezartzeko aukera aztertu.
65. Estatuko erakundeekin lan egin Deikaztelun 220ko azpi-estazioaren eraikuntza sustatzeko. Argindar-horniduraren sarerako inbertsioen plangintzari dagokionez, eta gure eskuduntzen barruan, argindar-horniduraren bermea hobetzen jarraitzeko beharrezkoak diren ekintzak sustatu, eta gure Komunitateko lurralde osoan suerta litezkeen beharrian berriei arreta eman, bereziki Erriberan, Erriberagoitian, Lizarraldean, Iruñealdean eta Pirinioetan.
66. Mugikortasun-plan estrategikoa, aldaera guztiak bilduko dituen eta garraio adimentsu, jasangarria eta integratuaren ildoan, eskualdeen arteko eta eskualde-buruetaranzko garraiobide publikoa hobetuz eta sustatuz, landa-eremuetan bizi direnei zerbitzu publikoetara sarbidea ahalbidetzeko.
- 67.** Argindar-kontsumo berriztagarria duten mugikortasun autonomoko ibilgailuak sustatu. Mugikortasun Eraginkorreko Plana, igorpenei dagokionez murriztailea. Argindarra birkargatzeko guneak sustatu herrietan eta bizilagun-komunitateetan. NAVEAC plataformaren aldeko apustua.

Merkataritza

68. Gertutasunezko eta kalitatezko xehetako merkataritza bultzatzeko 2018-2020 Plana mantendu, zenbait neurri zabalduz. Bereziki, BID (Business Improvement

District) direlakoei buruzko foru legea onartzen bukatu. Bereziki halaber, landa-eremuko merkataritza berriari laguntzen jarraitu, populazio txikia edo sakabanatua duten hainbat eskualdeei balioa emateko garapen komertzialaren eta turistikoaren mesedetan.

69. Aurrekontu bidezko laguntzak tokiko administrazioei erdigune historiakoak berreskuratu eta mantentzeko, turismoa sustatu eta inguruko ekonomiari eusteko bitarteko gisa. Auzo eta herrietan, bidea zabaldu eman hiria trinkotzeari lagunduko dioten merkataritza-ardatzak sortzeko, mugikortasuna gutxitu eta bertakoen joan-etorrien eta merkataritzako eta zerbitzuetako jardueraren artean oreka lortzeko.
70. Sustatu tokiko merkataritza, eta hura modernizatu eta espezializatzea: gure hiri eta herrietako dendetan kontsumitzeko sustapen-neurriak garatu.
71. Merkataritzaren sektorean berrikuntzarako eta bikaintasunerako berariazko diru-laguntzak sortu, berezko estrategiak ezarri edota sektoreak berak proposaturiko neurrietan laguntza eman.
72. Merkataritza Ibiltariaren Plana. Kontsumo-ohituretan gertatzen ari diren aldaketak jasaten dituen sektoreari laguntza eman.

Turismoa

73. Turismo Legea aldatu, eta ondoren araudia garatu, zerkusia duten arlo guztietako eragileekin adostuta.
74. 2018-2025 bitarterako Turismo Plan Estrategikoa ezartzen jarraitu, errebisio eta hobekuntza egokiekin eta sektoreko eragile nagusiek parte hartuta, turismoaren sektorearen posizioa Nafarroan sendotzeko xedez, jasangarritasunean, turismo-adimenean eta digitalizazioan oinarriturik. Jarduerak sasoiekiko duen menpekotasuna gero eta txikiagoa izan dadin lan egin, eta eskaintza espezializatu (turismo gastronomikoa, landa-eremukoa, kulturala, historiko-artistikoa, naturakoa, osasunari lotutakoa, kirol-turismoa, negozioena, biltzarrena etab.).
75. Nafarroan turismoa sustatzeko politikei lehentasuna eman, turismo jasangarri eta masifikatu gabea lortzeko, Turismoaren Munduko Erakundearen ildoekin bat. Udalekin koordinatutako plan bat ezarriko dugu, apartamentuen eta bestelako turismo-ostatuen legez kanpoko eskaintza arautzeko.
76. Turismoaren Plan Estrategikoaren esparruan, sektoreko berrikuntzaren eta ekintzailtzaren sustapen koordinatua garatu, hala nola gune turistikoak

produktuz, zerbitzuz eta irtenbidez hornitzen dituen espezializatutako balore-katearen jarduerena.

77. Donejakue Bideak Nafarroan egiten duen zatia sustatuko da, zerbitzuei, segurtasunari eta gainerako elementuei dagokienez dauden beharriaz buruzko azterketa bat eginez. Nafarroako erakargune turistiko hori kalitatezko kultur turismo osasungarriaren erreferente bihurtzea izanen da helburua.

3.6.- IRAUNKORTASUNA, INGURUMENA ETA EKONOMIA BERDEA

1. Garapen Jasangarrirako NBEren 2030 Agendaren helburuetara egokitu Nafarroako Gobernuaren politika publiko oro, ingurumen-aldaera txertatuz. Legegintzaldiaren lehenbiziko urtean onartu Klima Aldaketa eta Energia Trantsizio Legea, etorkizuneko erronkei eta Helmuga Berdearen planteamenduak dakartzanei aurre egiteko ezinbesteko tresna izanen dena, estatuko Energia eta Klimaren Esparru Estrategikoarekin bat eginik. Esparru horren gakoak dira Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren lege-aurreproiektua, Energiaren eta Klimaren 2021-2030erako Plan Nazional Integratua, eta Bidezko Trantsiziorako Estrategia.
2. Epeka, Administrazioak kontratatzen dituen produktu, ondasun eta zerbitzuen "karbono-aztarna" neurtzeko derrigortasuna ezarri, aurreikusitako neurketekin bat ez datozenak progresiboki kontratatzeari utziz. Ezarri aztarna horren adierazleak, Administrazioak kontratatzaile gisa bere buruari jartzen dizkion mugak, eta erdietsi beharreko xedea.
3. Sortu Suspergarri Berdeen Plan bat, pizgarriak garatuko dituen energia berriztagarriak garatzeko, epeka erregai fosilak ordezkatu eta energia-buruaskitasuna sustatzeko. Eta, beste alde batetik, eman pizgarriak etxebizitzak eta eraikin publikoak birgaitzeko, energia-aurreztea eta energia-eraginkortasuna lortzeko xedez. Foru Administrazioaren eraikinei eragingo dien energia-jasangarritasun programa bat onartu, energia-eraginkortasunerako eta berriztagarriak erabiltzeko neurriak aurreikusiko dituen. Lan publikoetan ia energia-kontsumorik gabeko edo energia positiboko eraikinen derrigorrezkotasuna ezarri.
4. Energia berriztagarriak, autokontsumoa eta sektorean enplegua sortzea sustatu, energia-trantsizioan aitzina egiteko. Instalazio berriztagarri txiki eta ertainetarako zuzeneko laguntza-lerro bat ezarri. Instalazio berri horien portzentaje bat tokiko entitateek, herritarrenek edo gertuko argindar-kontsumoa bultzatzeko kooperatibek sustatuko dituzte. Partekatutako autokontsumorako instalazioak ahalbidetuko dituen araudi bat ere ezarriko da.

5. Energia eta Klimaren Esparru Estrategikoarekin bat, Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan Zuzendaria onartuko dugu. Motorrik gabeko mugikortasuna bultzatu, oinez eta bizikletaz eginiko lekualdatzeak sustatuz. Indartu garraio publikoa eta partekatua, askotariko garraio adimentsua sustatuz pertsonen eta salgaien mugikortasuna optimizatzeko, eta energia garbiz dabilzan garraiobideak bultzatuz.
6. Energia-trantsizioaren alorrean Nafarroa lurralde aitzindari gisa aurkeztu, Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategian energia berriztagarrien eta energia-baliabideen sektorea lehentasunezko sektore gisa sartu izanarekin bat eginez.

Bultzatu Nafarroako Energiaren Agentzia sortzea, honezkero indarrean dagoen 2030erako Energia Planean aurreikusita den gisa berean.

Nafarroa osorako Energia Berriztagarriaren Operadore Publiko bat sortzea komenigarria den aztertu.

7. Uraren Esparru Zuzentzararen printzipioei men egin, neurritz eginiko ur-kontsumo jasangarrien alde, klima-aldaketaren ondorioei aurrea hartuz eta saihestuz. Ildo berean, legegintzaldiaren lehen urtean onartu jada idatzirik dagoen 2030erako Nafarroako Uraren Esparru Estrategia bateratua. Estrategia horren funtsezko zutabe gisa, garatu 2019-2030 bitarteko Hiri barruan Erabiltzeko Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzendaria, edateko ur-hornidurarako iturriak babesteko egitasmoak barne, eta urari dagokionez ekonomia zirkularraren alde eginez. Ibai-bazterren egoera ekologikoa hobetu, haiek berrosatzeko inbertsioak handituz eta Tokiko Entitateentzako diru-laguntzak sustatuz.

Garatzeke dauden inguruetan, uholdeei aurre egiteko planak idazteko laguntza eman.

8. Ekonomia Zirkularreranzko bidean, lan-mahaiaren deialdia egin dadila eskatu, Konstituzio Auzitegian errekurritutako Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legearen puntuak aztertzeke.

Sustatu kontsumo arduratsuko jokabideak, planetaren baliabideak agortzearen aitzinean neurritasunean oinarriturikoak. Tokiko kontsumoa eta zirkuitu laburrak sustatu. Produktu jasangarrien eskaera suspertu, erosketa publiko berdearen bidez, eskoletako jangeletan batez ere.

Aipatutako Foru Legearen edukien balizko errebisioa aztertu, besteak beste hondakinen kudeaketan eta errefusaren trataeran desakordioak adosteko.

9. Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko 2030 Agenda aplikatu, zero hondakinen xederantz urratsak eginez. Gero eta plastiko gutxiago erabiltzeko helburu neurgarriak planteatu. Etorkizun-ereduaren paradigma gisa, produktuak deseraikiak izan ahal izateko eran diseinatzea bultzatu; era horretan, gure hondakinak lehengai bihurtzea erdietsiko du ekonomia zirkularrak.
10. Legegintzaldiaren lehen urtean, ingurumenean eragina duten jarduerak erregulatzeko foru lege bat onartu. Ingurumena Babesteko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeak ingurumenean eragina duten jardueretikiko prozedurak errazten ditu, eta jarduera horiek ingurumen-eskakizunetara egokitutakoak izanen direla aurreikusten du; haren aplikazioak agerian utzi du gaur egungo egoeran aldaketak eta egokitzapenak egiteko beharra. Foru Lege berriak araudi zorrotzagoa izan behar du beren jardueragatik airearen kalitateari kalte egiten dioten industriei eta azpiegiturei dagokienez, eta airearen kalitateari buruzko datuez egunero publikoki informatu beharra jasoko du.
11. Ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzailea den heinean, Foru Administrazioak neurriak hartuko ditu ondasunak eta produktuak ingurumenean inpaktu txikiagoa eraginez kontsumitzea sustatzeko. Ingurumen-irizpideak kontuan izanen dira diru-laguntza publikoak emateko deialdien oinarrietan, eta ingurumenarekiko begirunea duten ondasun eta zerbitzuen kontratazio publikoa areagotzeko. Jasangarritasunaren alorrean Tokiko Administrazioa eredugarria izan dadila bultzatu (Tokiko 21 Agenda).
12. 2030erako Nafarroako Biodibertsitate Estrategia bat bultzatu, biodibertsitatea galtzea eta ekosistemak hondatzea ekiditeko, eta natur ondasunen balioa aitortzea sustatzeko (ekosistemen zerbitzuak). Mehatxatutako landare zein animalien basa-espezieen katalogoak behar bezala eguneratuta eta indarrean izan, hala nola naturaren eta paisaiaren babes-figurak (Nafarroako Natur Guneen Sareko guneak).
13. Natur Ondarearen eta Biodibertsitatearen Foru Lege berri bat ondu, arlo horretan dagoen zaharritutako legedia ordeztuko duena. Garatu natur guneen eta gune berezien sarea (Nafarroa Ezagutu Sarea), eta paisaia babesteko eta balioa ematera bideratutako neurriak. Garatu jadanik idatzita dagoen Nafarroako Azpiegitura Berdeen Estrategia.
14. Bultzatu Natura 2000 Sarea, naturaren kontserbazioa herritarrentzako onurekin eta orobat ekonomiarekin bateragarria izan dadila sustatzen duen europar sare ekologikoa. Natura 2000 Sareak ez du oztopatzen bere barnean hartzen dituen tokien garapen sozio-ekonomikoa; aitzitik, bestelako aukerak eskaintzen ditu ekoizpen-jarduera tradizionaletarako, dibertimenduzko jardueretarako eta turismorako.

15. Laborantza eta balio naturalen kontserbazioa elkarrekin uztartzeko lan egin, bai lehorreko lursailak sail ureztatu bihurtzeko, bai haiek modernizatzeko, bai lehorreko laboreak areagotzeko.
16. Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen errebisioa eta eguneratzea sustatu.
17. Gizartearen eta herritarren parte-hartzea indartu, ingurumenarekin loturiko informazio- eta boluntariora-jarduerak sustatuz. Hezkuntzaren eta formazioaren etapa orotan ingurumenaren jasangarritasuna txertatu. Gizarte zibil osoaren laguntza aktiboa eskatu, eta bereziki enpresena, gure ekonomiaren giltzarrietako bat diren heinean.

3.7.- OGASUNA, BALIABIDE PUBLIKOAK ETA FISKALITATEA

Gastu eraginkorra

1. Baliabide publikoen politika orekatu, garden eta arduratsua egin, gastu arrunta une oro kontrolatuz,
2. Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren mekanismoak berrikusi. Sektore publikoak dirua nola gastatzen duen ezagutzea eta kudeatzea funtsezkoa da sortu nahi dugun eraginkortasun-testuinguruan. Ikuspuntu finantzariotik sektore publiko jasangarria izateko bide berriak jorratu beharra dago.
3. Gastu arrunta aztertzeko eta baloratzeko neurriak sustatu, ahalik eta eraginkortasunik eta kalitaterik handieneko ondareak eta zerbitzuak eskaintzeko. Baliabideen kudeaketarako eraginkortasun-neurriak hartu, ekonomiaren agertokian balizko aldaketen aitzinean eraginkorrak izanen direnak.

Aurrekontua

4. Zerbitzu eta politika publikoen planifikazioa eta ebaluazioa, Gobernu-dinamika eraginkorrak sor ditzakeen Aurrekontu sistema Estrategikoa bultzaturik. Aurrekontuak administratzeko garaian funtsezkoa da, eraginkorrak izateko, kudeaketa-unitate itxiak gaintitzea, gastua handitzea eragiten duten egitura-errepikapena eta funtzio transbertsalak kenduz, eta Nafarroako Aurrekontuak ikuspegi orokorrez pentsatzea.

5. Finantza publikoen zorrotasunean eta jasangarritasunean oinarrituriko aurrekontu-politika aplikatzen jarraitu, etorkizuneko ekonomia-hazkundera kolokan ez jartzeko xedez, baina betiere helburu horiek enplegua sortzekoekin eta gizarte-politika eraginkorrak egitekoekin bateratuz.
6. KESi protagonismoa eman aurrekontuak osatzeko garaian proposamenak aurkezteari dagokionez.

Kudeaketa-eredua

7. BPGren maila bereko adierazle gehigarriak ezarri, erabakiak hartzeko unean erreferentziazko erakusgarri gisa; esaterako, Giza Garapenaren Indizea, Giniren koefizientea... zeinen xedea baiten garapen sozio-ekonomikoa, hala nola gizarte baten barnean dagoen desberdintasuna, neurtzea.
8. Gardentasun ekonomiko-finantzario publikoaren eta kontu irekien esparruan, Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoa osatzen dute entitate guztien kontu publikoen azalpenari dagokion eta eskura dagoen aurrekontu- eta ekonomia-informazioa handitu.
9. Kudeaketa-eredu arduratsua ezartzeko aitzinerako pausoak egin, ziurtatuz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren ekonomia-jardunak bat egiten duela legeak ezarritakoarekin, ekonomiaren, finantzen, aurrekontuen eta zergen alorretan.
10. Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoan ezar daitezkeen bat-etortze teknologikoko proiektuetan sakondu, lehiakortasuna eta herritarrei zerbitzu publiko hobea ematea ahalbidetzen duten barne-prozesuak hobetuz,

Hainbat alorretako europar legedia aztertu, bereziki etorkizuneko garapen sozial jasangarriaren ereduarekin zerikusia dutenak, printzipio horiekin bat egiten duten zerga-motaren bat ekartzeko.

Iruzuraren aurkako borroka

11. Salgai-eta zerbitzu-transferentziako prezioen ikuskaritzaren fokua zerga-administrazio bat baino gehiago diharduten enpresei begira jarri.
12. Paradisu fiskalen aurka borroka egiteko konpromisoa berretsi.

13. Erabateko bultzada eman konkurrentzia desleialaren, iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako borrokari. Gaur egungo Zerga Iruzuraren Aurkako 2016-2019rako Borroka Planaren araudia garatzen jarraitu, aurreikusita dagoen eran, une oro berrikusiz eta gaurkotuz Zergen Foru Lege Orokorra eta beste batzuk (PFEZri eta Sozietateei buruzkoa, adibidez), aipaturiko planak aurreikusten dituen helburuetara iristea errazteko.
14. Estatuko eta Europako gainerako Ogasunekin lankidetzeta eta koordinazioa, zerga-iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurka eraginkortasunez borroka egiteko, erakundeen artean informazioa partekatzeko sistemei ahalik eta etekinik handiena aterata, iruzur fiskalaren kontrola, jarraitzea eta zigortzea gero eta eraginkorragoak izan daitezzen.

Ekonomia-jardueretarako fiskalitatea

15. Sozietateen gaineko Zergaren oinarriak bateratzeko pausoak eman.
16. Sozietateen gaineko Zergaren funtzionamenduaz eztabaida sustatu estatuko eta Europako esparruetan.
17. Nafarroako autogobernu fiskalerako mekanismoak indartu, bai PFEZi bai Sozietateen gaineko Zergari dagokienez, garapen jasangarriari, berrikuntzari, ekintzailtzari eta enpleguari mesede egingo dien eredia suspertu ahal izateko.
18. Lan egin Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-sistema hobetu, eguneratu eta garatzeko, erantzun diezaien bertako ekoizpen-ekonomiaren premiei, Foru Administrazioaren finantza-buruaskitasunari eta, oro har. Nafarroak ongizate-mailari eta gizarte-babesari eutsi ahal izateko dituen beharrei.
19. Nafarroan diharduten enpresen mozkin fiskalak eta enpresa handien zergak berrikusiko ditugu.
20. I+G+Bren kenkari fiskalak mantendu, hala nola enplegua sortzeagatik kenkarien zenbatekoa, sortutako lanpostuen iraupenaz eta kalitateaz den bezainbatean konpromiso handiagoa exijituz.
21. Legegintzaldian zehar Foru Lege Proiektu bat ondu, enpresen onura fiskalen baldintza gisa ezartzeko beren lan-kontratuen portzentaje bat egiteko NEZ erabili beharra.
22. Ekonomia digitalaren fiskalitatea bultzatu, merkataritza elektronikoaren eta burtsa-operazioaren esparruan zerga berriak ezartzea aztertuz; izan ere, arlo

horretako legedi-ezaren ondorioz, gaur egun ez dago Nafarroan operazio horiengatik zergarik ordaindu beharrik, nahiz eta foru-lurraldean egin.

Pertsonentzako fiskalitatea

23. Hobetu, PFEZn, familia-gutxiengoagatik errenta ertain eta baxuei ezarritako kuotatik kendu beharreko kopuruak.
24. Legegintzaldian zehar pausoak egin, finantza-askitasunaren printzipioaren esparruan, PFEZn banakako gutxiengoagatik kuotatik kendu beharreko kopuruak aldatzeko aukera aztertzeko, errenta-maila jakin batzuen kasuan.
25. Etxebizitza-jabeentzat alokairuagatiko kenkariak orientatzea, Alokairuen Jasangarritasun Aurkibidearen (AJA) arabera.
26. Helmuga berderantz aitzina pausoak egiteko neurri fiskalak ezarri. Auto hibrido eta elektrikoen matrikulazio- eta zirkulazio-zergak murriztu.
27. Ontziratutako edari azukredunen gaineko zerga bat ezartzea aztertu, kontsumo-ohituretan aldaketa eragite aldera, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) gomendatzen duen bezala, mota horretako likido gutxiago harturik.

3.8.- HIZKUNTZ POLITIKA

1. Euskararen inguruan akordio sozial eta politiko zabala sustatu, Nafarroaren idiosinkrasia eta bertako errealitate soziolinguistikoa islatuko dituen, beharriari erantzungo diena eta Foru Komunitatean mintzatzen diren hizkuntzekiko harremana eta bizikidetzat gauzatzeko askeak izaten jarraitzeko aukera emanen diguna, euskara behin betiko alderdien arteko eztabaidatik eta liskarretik, eta herritarrengan diskriminazio-sentimenduak ezabatuz.
2. Kotsentsu-arau gisa, edo. behar izatekotan, garatzeko arau gisa mantendu Euskararen 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, aitzineko paragrafoan agertutako printzipioekin bat eginik eta, edozein kasutan, LORAFNAK gaiaz dioena errespetaturik moldatu ahal izanen dena,

Foru Legearen garapena, egitekotan, Nafarroako errealitate soziolinguistikoko guztiak islatuko lituzkeen parte-hartezko prozesu baten bidez egiten litzateke.

3. Euskararen erabilera erregulatzen duen araudia aztertu eta, behar izatekotan, egokitu, lurraldeko errealitatearekin eta bertan dagoen eskariarekin bat eginen duen tratamendua bermatzeko. Aldi berean, araudiak babestu eginen du herritarrek euskara erabiltzea eta ezagutzea, borondatezkotasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioekin bat eginik.
4. Gobernua eratzetik urtebeteko epean gehienez, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeari buruz indarrean dagoen araudiaren funtzionamendua aztertuko da, diagnostiko horren arabera indarrean dagoen araudiaren moldaketa bultzatzeko, kontsentsu sindikal, sozial eta politiko handiagoaren bila.
5. Halaber, aintzat hartuko da ebazteke dauden indarreko araudiaren aurkako helegiteez Justizia Auzitegiek une oro erabaki dezaketena, bai eta ere administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonen eskubide bateratuei begirunea.
6. Euskararen 2. plan estrategikoa prestatu, gobernu aurrerakoia osatzeko Akordioan ezarritako ildo nagusien barnean.
7. Euskararen sustapena hedabideetan, euskararen irakaskuntza pertsona helduei, bizitza sozial eta kulturala, bereziki gazteenei zuzenduriko programak
8. Erakunde publikoekin eginiko lankidetzak-hitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.
9. Berezko hizkuntzak dituzten Autonomia Erkidegoekin, eta Europakoekin, koordinazioa mantendu, indarrean dagoen errealitate instituzionala eta legedia errespetatuz.
10. Aztertu, eta, behar balitz, aintzat hartu Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eginiko gomendioak eta "Aritu Batzordearen Ebaluazio Txostenak" eginiko oharak, eskualdeetako hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Gutuna aplikatzeari dagokionez.
11. Euskarabidea organismo autonomo gisa mantendu, gaur egun dituen eskuduntzekin, eta bere jarduerarako aski aurrekontu eta baliabide emanik.

3.9.- BERROSATZEA ETA DEMOKRAZIAREN KALITATEA

1. Kontratu Publikoek buruzko Foru Legearen 40. artikulua dioenaren aurka egin gabe, neurriak sustatuko ditugu inbertsio estrategikoei edo zenbateko handikoei ekin aitzinean haien bideragarritasunaz, bai oraingoaz bai

- etorkizunari begirakoaz, txosten ekonomiko egokiak existitu daitezen, mantenedota ustiapen-kostuak barne harturik. Zentzu horretan, eskumen berriak emanen dizkiogu Kontuen Ganberari.
2. Indartu eginen dugu ustelkeria politikoagatik zigortutako enpresekin kontratuak egiteko debekua, gutxienez bost urteko epean, Administrazio Publikoentzat, organismo autonomoentzat eta enpresa-sektore publikoarentzat
 3. Neurriak aztertuko dira legediaren arabera Parlamentuari dagozkion pertsonen izendapenak bete beharreko funtzioarekin zerikusia duten profesionaltasun-irizpide objektiboen arabera egiteko. Edozein kasutan, eta beharrezkoa balitz, legearen moldaketa egokiak eginen liriateke bere hautagaitza aurkeztera erakundearen aitzinean agertu ahal izateko.
 4. Nafarroako Gobernuko eta Parlamentuko kideentzat kode etikoak eta jokabide-kodeak prestatu, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Legearen 6. artikulua ezarritako eran.
 5. Gardentasunari buruzko 5/2018 Foru Legea Nafarroako Parlamentura zabaltzeko aukera aztertu.
 6. Parlamentuaren Erregelamendua moldatzeari ekin, transfugismoa ekiditeko neurriak jasoz.
 7. Tokiko entitateei zuzenduriko plan estrategikoa prestatu, datu publikoak eskuratzeko atariak abian jartzeko xedez. Halaber, aurrekontu bidez sustatuko da Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua, Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legearen eskakizunak beteko direla bermatzeko.
 8. Salatzailearen Estatutu bat prestatuko dugu, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Legeak dioenaren arabera. Halaber, lege hori abian jartzea sustatuko dugu.
 9. Administrazioa digitalizatu eta burokrazia murriztu. Burokrazia zeharo murrizteko urratsak eginen ditugu. Maila orotan administrazio elektronikoa ezartzeari bultzada, herritar aunitzek jasaten duten arrakala digitalari berebiziko arreta emanik.
 10. Open data kultura sustatu. "Datu ireki" metodologia ezarri, opakutasunak, ustelkeria eta klientelismoa eragozteko funtsezko tresna den heinean. Administrazioaren aztarna osorik argitaratzeko zeregina ere hartuko da.

11. Funtsezko zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketa publikoa lehenesteko beharrezko neurriak hartu.
12. Nafarroako Foru Administrazioak eskaintzen dituen kontratu publikoetan, erantzukizun sozialeko irizpideak aplikatzen dituzten enpresak saritzeko klausulak gehituko dira.
13. Eliza Katolikoaren alde immatrikulatutako ondasunen jabegoa eta bestelako eskubide errealen titulartasuna eskatu, aipatu immatrikulazioa eskubide errearen titulartasuna justifikatzen duen aurretiazko titulu materialik existitu gabe egin bazen.
14. Abuztuaren 10eko Nafarroako Foruen Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 55.3 artikulua dio Nafarroak, bere xedekak betetzeko, aukera izanen duela bere prentsa, irratia eta telebista eta, oro har, komunikazio sozialerako bitarteko guztiak erregulatu, sortu eta mantentzeko. Aztertu eskuduntza hori garatzeko aukera, gaur egun gailentzen ari diren informazio-kontsumorako plataformak egokituz, eta aztertuz bideragarria ote den, plataforma digital multimedia bat oinarri izanen duen komunikazio- eta informazio-erakunde publiko bat sortzea, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatuz eta zeharo errespetatuz egiazkotasun-, profesionaltasun-, meritu- eta zorrotasun-irizpideak, albiste falsuak, informazio-askatasunaren oinarritzko eskubideari eraginez, kazetaritza-lanari egiten dioten mehatxuaren aitzinean,
15. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduari hizkuntza barneratzailea eman, bere idazkerari dagokionez.
16. Beharrezkoak diren moldaketak gehitu Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan, herritarrek parte hartzeko mekanismoak hobetzeko,
17. Foru-parlamentarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean kotizatzen hasteko beharrezkoak diren lege-aldaketak bultzatu, kargua utzi ondorengo ordainsariak ere ezabatuz, kasu horretan langabeziagatiko subsidio arruntak jasotzeko ere badute eta.
18. Irisgarritasun kognitiboa sustatu. Nafarroako Administrazioak eta Parlamentuak argitaratutako testu orotan hizkuntza bakuna erabiliko da, hitz arruntak erabilia, hizkuntza sexista saihesteari berebiziko arreta emanik. Dokumentuaren izaeragatik edo konplexutasunagatik hala egitea ezinezkoa den kasuetan, haren laburpen bat erantsiko da.

3.10.- FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNEKO GAIAK

Funtzio publikoa

1. Gobernuko departamentuen egitura aztertu, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuetan bikoiztasuna saihesteko, kostua gutxituz eta kalitateari eragin gabe eraginkortasuna handitzeko xedez.
2. Nafarroako Administrazio Publikoa antolatzeko Lege berria. Administrazioaren tamaina neurtu, zerbitzu publikoa optimizatzeko aukera emanen duen lanpostuen eta lan-zamaren azterketa eginez. Sarbide-, promozio- eta mugikortasun-prozesuak hobetu, berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioetatik abiatu.
3. Funtzio publikoa benetako eta etengabeko Gizarte Elkarrizketa abian jarri, Funtzio Publikoaren Estatutua moldatzea eragin lezakeena. Epeka berreskuratu funtzio publikoan lan egiten duten pertsonen eskubideak, dagokien negoziazio-mahaian parte hartzearen ondorioz adostuko direnak.
4. Funtzio Publikoaren Estatutuaren erreforma bultzatzen jarraitu, eginiko azterketatik eta erdietsitako kontsentsuetatik abiatuz. Benetako administrazio-karrera bat ezartzea sustatuko dugu, meritu, gaitasun, esperientzia eta jardunean oinarriturik, eta aldiro jardunaren ebaluazioa eginik. Berdintasun-planak sendotu Administrazio Publikoaren langile-politikaren barnean. Foru Administrazioan belaunaldien arteko errelebo-plan bat garatu
5. Enplegu publiko egonkorraren aldeko apustua egiten jarraitu, LEPen bidez baimendutako lanpostuetarako deialdiak eginez. Osasun- eta hezkuntza-departamentuetako postuei emanen zaie lehentasuna.
6. Bateriaezintasunen Foru Legearen moldaketari ekin, besteak beste goi-mailako kargu ohientzako diru-sari osagarriak ezabatuz. Funtzionarioen bateraezintasun-erregimenaren jarraitze zorrotza egiten jarraitu, batez ere zuzendaritza- edo ardura-karguak dituzten kasuan, bai Administrazioan bai enpresa publikoetan.
7. Langileentzako Berdintasun Planak sustatu Nafarroako Gobernuan bertan eta 50 langile baino gehiago dituzten enpresa publikoetan, legeak ezartzen duen bezala.
8. Azterketa bat egin Nafarroako Liburutegi Sare Publikoan diharduten langileen egoeraz eta haren balizko hobekuntzez.

Justizia eta Barnea

9. Nafarroako Justizia Administrazioa teknologiaren alorrean modernizatzea bultzatu, Estatu osoan bateragarriak diren aplikazio informatikoen bidez. Espediente digitala behin betiko ezartzea sustatuko dugu, Justizia Administrazioaren Erakunde orori eraginik. Teknologien ezagutzaz eta erabileraz kultura berria garatuko dugu, ingurune juridikoetan teknologia sustatzeko plan bat eginez.
10. Nafarroako Gobernuaren, Justizia Ministerioaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arteko koordinazioa hobetu, zerbitzua optimizatzeko.
11. Gatazkak epaitegietatik at konpontzeko sistemak garatzearen aldeko apustua egiten jarraitu, bereziki bitartekaritza zibilari eta zigor-arlokoari dagokienez, gizarteratzeko, gertutasunerako eta pertsonen gastua arintzeko neurri gisa.
12. Doako asistentzia juridikoa emateko sistema indartzeko egokiak diren neurri oro sustatuko dugu, Justiziara sarbidea bermatzeko berdintasun-, homogeneousitate- eta espezializazio-baldintzetan, haren zerbitzu publikoko izaera indartzeko. Elkargo profesionalekin adosturik, Justizia Administrazioarekin kolaboratzen duten profesionalen zerbitzuek gutxieneko kalitate-eskakizunak betetzea sustatuko dugu.
13. Biktimen arretarako bulegoa indartu, Biktimen Estatututik eratorritako eskubideak ezagutzen dituztela ziurtatzeko.
14. Justizia Departamentuaren barnean Zigor Arloko Betearazpen Bulego bat sortzeko aukera aztertuko dugu, askatasun-galera ez dakarten zigorrak eta neurriak kudeatzeaz arduratuko dena, hala nola askatasun partzialeko egoeran eta baldintzapeko askatasunean dauden pertsonen Bergizarteratze Sarea koordinatzeaz. Era berean, pixkanaka bereganatuko ditu eskuduntzak zentroen funtzionamenduaren alorrean, eta epe ertain eta luzeko tratamendu-programen diagnostikoan, sailkapenean, diseinuan eta betearazpenean.
15. Tratu txarrak prebenitzeko protokoloen ebaluazioa sustatuko dugu Nafarroako Gobernuaren eta tokiko entitateen menpeko atxilotze-gune orotan, eskubide horiek betetzea eta tratu txarren prebentzioa bermatuz.
16. Delitu-mota berrien aitzinean, Foruzaingoa herritarren segurtasunerako eskaeretara bai profesionalki bai antolakuntzaren aldetik ongi egokitzea ahalbidetuko duen Erreforma Integrala. Horretarako, uste dugu premiazkoa dela gure polizia Ordenatzeko eta Modernizatzeko Plan Estrategiko bat izatea.

17. Foruzaingoaren zabalkundearen berrikuspena eta hazkundera, Nafarroako erreferentziatzeko polizia gisa era egokian funtzionatu ahal izateko behar adina giza baliabide emanez, eta emakume gehiago egotea bultzatuz. Xede horrekin, estatuko gobernuarekin adostu LEP deialdien prozesua eta egutegia, Foruzaingoaren langile-kopurua handitzea ahalbidetuko duena, segurtasunaren alorrean erreferentziatzeko polizia izan dadin Nafarroan.
18. Estatuko gobernuarekin adostu Trafiko eta Bide Segurtasunaren eskuduntza Nafarroak hartzeko akordioen burutzea, eta lanean jarraitu Foruzaingoa izan dadin Nafarroako erreferentziatzeko polizia herritarren segurtasunaren eta ingurumenaren alorretan.
19. Nafarroako Polizien Lege berria garatu, beharrezkoak diren araudi-tresnen bitartez, eta poliziaren antolakuntzaren kalitatearen kulturaren sakondu.
20. Nafarroako polizien formazio-programa berrikusi eta bultzatuko dugu, generoari dagozkion alderdiak, gatazkak konpontzeko bestelako teknikak, eta etikaren eta polizia-deontologiaren alorreko formazioa areagotuz,
21. Beharrezkoak diren ekintzak sustatu, Aranguren-Sanquínen instalazio berri egokiak sortu ahal izateko, zeinetan zentralizatuko baitiren Foruzaingoaren komisaria nagusi berria, segurtasun- eta larrialdi-eskola eta segurtasun-politiken eta babes zibilaren zerbitzuak, hala nola Barne Departamentuko zerbitzu administratiboak eta juridikoak.
22. Koordinazio eta Aginte Gunea hobetu eta eduki handiagoa emanen diogu. Lankidetzeta-hitzarmenak eta kudeaketa-tresnak garatzen jarraitu, Foruzaingoaren eta Nafarroan dauden polizia ororen artean koordinazio eraginkorra erdiestera bideraturik.
23. Segurtasun- eta larrialdi-eskola sustatzen jarraitu.
24. Legegintzaldi honetan landu den Suhiltzaileen Plan Zuzendari berria idazten bukatu, ondoren onartu eta garatu ahal izateko.
25. Profesionalizatutako antolakuntzarekin eta boluntarioen parte-hartzearekin bat egiten duen larrialdi-plana onduko dugu Nafarroan. SOS Nafarroa 112 Gunearen erregulazio berria garatu, haren antolakuntza eta zerbitzuak eguneratzeko XXI. mendeko irizoideen arabera, larrialdien arretarako gune bakar gisa. Larrialdi-plan oro berrikusten eta gaurkotzen jarraitu. Norbere buruaren babesa sustatu, larrialdien prebentzioan hobera egiteko tresna gisa.
26. Babes zibileko eta larrialdietako politika bat ezarriko dugu, prebenitzeko eta administrazio guztien jarduera koordinatuari arrakastaz ekiteko.

3.11.- MEMORIA, BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

1. Bizikidetza, Oroimen eta Giza Eskubide Plan Estrategiko bat garatu, ahalik eta kontsentsurik handiena erdietsiko duena, eta arlo horietan jarraitu beharreko ildo estrategikoak ezarriko dituen.
2. Bultzatu, Nafarroako Parlamentuan, zoru etiko komun eta partekatua finkatuko duen agiri bat onartzea, Nafarroako Foru Komunitateko Erakundeentzat oinarria izanen dena jatorri politikoko indarkeriari zilegitasun oro kentzeko eta oroimenaren eta biktimen arloan lan egiteko. Zeregin hori garatzeko Batzorde Txostengile bat sortuko da Nafarroako Parlamentuan.
3. Rozalejoko Markesaren Jauregiko eraikinean Nafarroako Oroimenaren Institutua egiteko proiektua bultzatu.
4. Belaunaldien artean oroimenaren transmisioa egiten jarraitu, memoriadun eskolen gisako programen bitartez.

Oroimen historikoari dagokionez

5. Aurrekontu nahikoari eutsi gorpuak hobietatik ateratzen eta Nafarroako DNA bankuaren bidez identifikatzen jarraitzeko, indarkeria frankistaren biktimak aurkitzeko eta sendiei itzultzeko itxaropena dagoen bitartean, hobien-mapan dinamikoa izaten jarraitu dezan lan eginez. Udalekin eta elkarteekin koordinazioa bermatu deshobiratze- eta identifikazio-jardueretan, eta hobien mapak etengabe gaurkotzean.
6. Senideei eta biktimen elkarteei laguntza instituzional, legal eta finantzarioa ematen jarraitu, haien lanari duintasun eta aitortza handiagoa emate aldera.
7. Garaileen memoria goretzi edo Estatu-kolpea, gerra zibila edo diktadura oroitzen duten ikur eta monumentuak kentzea sustatzen jarraituko dugu. Betiere, nazioarteko gomendioak betetzeko konpromisoa harturik, eta zeregin horretarako aurrekontu publiko egokia emateko konpromisoaz. Neurri hori betetzeak eragiten dituen erresistentziei 33/2013 Foru Legeak aurreikusten dituen zigorrak ezarriko zaizkie.
8. Abenduaren 26ko 28/2018 Foru Legeak arautzen duen bezala, Oroimenaren tokien babesa, ikusgarritasuna eta dibulgazioa bultzatzen jarraituko da.

Duela gutxiko oroimenari dagokionez

9. ETArek eta beste talde terrorista batzuen terrorismoaren biktimei babesa eta elkartasuna mantendu eta bultzatzen jarraitu, ordezkatzeko dituzten elkarrekin lan eginez.
10. Terrorismoaren biktimek eta haien familien duintasunari eta oroimenari eraso egiten dien edozein ekintza errefusatu.
11. Indartu egiten ditugu baloreen irakaskuntza, giza eskubideen sustapena eta nafar gizartearen parte-hartzea, partekatutako oroimena eta iraganarekin erka daitekeen kontakizun bat eraikitzeko.
12. Indarkeria terroristaren ondorioei buruzko kontakizun ez-baztertzailerak osatzen jarraitu. Oroimenaren Institutuak terrorismoaren biktimek lekukotzak, bizipenak eta hausnarketak bilduko ditu, ez soilik ezaupidea diren heinean, baizik eta, baita ere, indarkeria, isiltasuna eta, batzuetan, gizartearen zati baten ahanztura pairatu duten pertsonekin gertutasuna eta enpatia lantzeko bide gisa.
13. Gai hauekin zerikusia duen orotan unibertsitateekiko lankidetzak bultzatzen jarraitu.
14. Biktimek elkarrekin ere barne hartuko dituen akordio politiko zabal baten bidez, sustatu Terrorismoaren Biktimek Aitortza eta Babes Integralerako 29/2011 Legea, irailaren 22koa, moldatzea edo gaurkotzea.
15. Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek zio politikoengatik eginiko ekintzen biktimek aitortza eta ordainerako martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatu eta aplikatu, betiere biktimeganako erakundeek begiradatik abiatuta.
16. Espetxeen Lege Orokorrean aurreikusitakoa bete dadila eskatuko dugu, askatasuna galtzea dakarten zigoren betekizunean deserrotzea saihesteko, birgizartratze-printzipioekin bat eginik.
17. Giza eskubideen alorreko delituen prebentziorako mekanismoak aplikatzea sustatu, Istanbulerako Protokoloan ezarrita dauden erakunde eta Giza Eskubideen Europako Batzordeak atxilotutako eta espetxeratutako pertsonenganako tratuari buruz emandako arauak jarraituz. Horretarako, bultzatu egiten dugu legedia arloko nazioarteko estandarretara egokitzea.

Bizikidetzari eta giza eskubideei dagokienez

18. Giza Eskubideen errespetua politika publikoen erdigunera eramanez duten programa transbertsalak garatu.
19. Tokiko entitateekin eta elkarteekin lankidetzan, pluraltasunaren eta kultur arteko aniztasunaren balio positiboa azpimarratzen duten ekimenak sustatu.
20. Diskurtso arrazista, xenofobo eta aporofoboak atzemateko eta prebenitzeko tresnak bultzatu.
21. Aurreikusitako edo jada abian jarritako bizikidetzaren arloko jarduerak garatu, indarkeriaren zilegitasuna ukatzeko programa hezitzaile eta kulturaletan sakonduz, arazo politikoaren eta sozialen konponbide gisa elkarrizketa sustatuz, eta gizarte-kontsentsua bultzatuz iraganeko edo gaur egungo edozein jarduerara edota jarrera bortitz eta ez-zilegi gaitzesteko tresna gisa.

3.12.- LURRALDE-KOHESIOA ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Tokiko administrazioaren sustapena eta hobekuntza

1. Toki Administrazioa Aldatzeko Lege berria martxan jartzeari dagokionez, eta kontuan izanik osaketa politiko berria, bai batetik legeak eragiten dien udaletan, bai NUKFn, bai Parlamentuan bertan, eta ontzat emanik halako lege batek edozein legegintzalditarako eta edozein testuinguru politikotarako balioko duen kontsentsu politiko zabala behar duela; ontzat emanik badirela azkar bideratu beharreko gaiak, eta eztabaidatu eta gehiengo zabalagoaz onar daitezkeenak; adosten da legeak ematen dituen epeen luzapena, 2020ko abenduaren 31ra arte, beharrezkotzat joko balitz beste luzapen bat egiteko aukera eta guzti, 2021eko abenduaren 31ra arte, zer aldaketa egin beharko den aztertu ahal izateko hainbat arlori dagokienez: eskuduntzak, finantzazioa, idazkarien eta kontu-hartzaileen egoera, kideen hautaketa, eta tokiko erakunde bakoitzak legedian izanen duen kokapena. Horrek ez du esan nahi kontsentsua erdiesten den gaiak lehenago garatu ezin izanen direnik.
2. LURSAREA, Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Nafarroako Agentziaren aldeko apustuari eutsi, 2016an sortu zenean eman zitzaion departamentu-arteko ikuspegia mantenduz, lurraldearekin zerikusia duten politikak koordinatzeko eta garatzeko elementu gisa, eta ikuspuntu egituratzaile batekin
3. Zoru ez-urbanizagarriari eta UGPSei buruzko legedia aldatu, udal-autonomia zapaldua deneko egoerak saihesteko.

4. Tokiko erakundeek hiri-antolamendurako tresnak eguneratu ahal izateko laguntza-lerroak garatzen jarraitu.
5. Foru Administrazioetik, tokiko erakundeentzako laguntza-mekanismoak sustatzen jarraitu parte-hartze eta gardentasun-prozesuetan, baita ere administrazio elektronikoa ezartzeko prozesuetan.

Tokiko finantzazioa

6. Urtebeteko epean burutu tokiko zerbitzu publikoen kostuak kalkulatzeko prozesuak, behar adinako finantzazioa jasoko dutela bermatzeko. Hiriburu edo eskualde-buru izateagatik udal batzuek (Iruñea, Tuter, Lizarra, Tafalla, Zangoza) izan ditzaketen gain-kostuak aztertu, kontabilitate analitikoa erabiliz eginiko analisi sakon baten bidez, udal horietako zerbitzuek zer kostu duten zehaztasunez ezagutzeko aukera emanen duena.
7. Tokiko finantzazio berria arautuko duten beharrezko lege-tresnak garatu (zergak eta tasak, transferentzia arruntak eta kapitalarenak).
8. Tokiko erakundeen finantza-egoera larriari arreta emateko erreskate-funtsa erregulatu eta garatu, Foru Administrazioaren aldetik.
9. Hainbat erakunderekin batera (Kontuen Ganbera, NUKF...), tokiko erakundeen antolakuntza eta ekonomia-kudeaketa (inbentarioak, kontabilitate-espeditenteak, etab.) hobetzeko tresnak garatzen jarraitu.
10. Udal-finantzazioari bultzada eman despopulazioa dagoen eskualdeetan (Lizarralde, Zangoza, Pirinioak...), diskriminazio positiboko irizpideekin.

Udalei gutxieneko diru-sarrerak bermatu, kalitatezko zerbitzu publikoei eutsu ahal izateko.

11. Nafarroako Udal Ogasunek 2018 eta 2019 urteetan Transferentzia Arrunt bidez izanen duten Nafarroako Zergen Parte Hartze Funtsaren zenbatekoak eta banaketa ezartzen duen Foru Legeak 2019ko abenduaren 31n utziko dio indarrean egoteari; hori dela eta, 2020ra arte luzatuko da legea, bai Funts horren urteroko zenbatekoaren gehikuntza KPI gehi bi punturen baliokidea izateari dagokionez, bai haren banaketa-sistemari eta aitzineko ekitaldian jasotako kopuruen berme-mekanismoei dagokienez. 2021. urteari begira tokiko finantzazio berrian lan egiteko konpromisoa harturik.

12. Tokiko Inbertsioen Plana erregulatzeko lege berri bat onartu.

Lurralde-kohesioari eta despopulazioaren kontrako borrokari dagokionez

13. Inguruneari lotuta dagoen eta kultur eta paisaia-ondareak aintzat hartzen dituen garapen ekonomikorako eredia sustatu; arlo horretako gobernu-ekintzak gerturatzea eta lurraldeko eskualde orotako eragile publiko zein pribatuekiko komunikazioa izan beharko du oinarri; jadanik badauden industria-guneak indarturik eta zerbitzu publikoen kontzentrazio geografikoari aurre eginik.
14. Arrisku demografiko handia duten lurraldeetarako politika zehatzak sustatu eta koordinatu, nafarroako despopulazioaren mapa eginez Tokiko Erakundeekin (Mankomunitateak eta Udalak) elkarlanean. Beharrezko neurrien ezarpena sustatu despopulazioa geldiarazteko, zenbait eskualderi (Zangoza, Lizarraldea, Pirinioak) berebiziko arreta eskainiz, azken urteotan onartutako txosten eta analisiekin bat eginik.
15. Oinarrizko zerbitzu eta azpiegitura-multzo bat definitu eta sustatu, eta herritarrak horietara iristeko estandarrak ezarri. Estatuak eta Foru Komunitateak eginiko inbertsioak esleitzeko orduan, eskualde bakoitzaren defizitaren arabera ezarriko dira lehentasunak.
16. Nafarroako lurraldean mapa eta estrategia komuna ezarriko dugu Europar Batasunetik jasotzen diren funtsekiko: NPB, Europako Egiturazko eta Inbertsioetarako Funtzak, Europako Lurralde arteko Lankidetzak, Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtza, barnean harturik funts horiekin lan egiten duten agentziak eta partzuergoak (LGP).
17. Epeka-epeka, ezarri Senatuan onartutako gomendio-sorta, zehazki "Espainian Landa-eremuaren despopulazioarekin lotutako neurriak ezartzeko Txosten Aztertzaileak" eta "Mendi-eremuetan despopulazioa saihesteko garatu beharreko neurriak aztertzei Batzorde Bereziaren Txostenak" eginikoak, hala nola berrikiago EUPFk eta NUKFk eginikoak.
18. Nafarroako Gobernuak emaniko tokiko lankidetzak ekonomikorako funtsa bat ezarri, despopulazioaren aurkako esperimentaziozko politika publikoen garapenari loturikoa, tokiko erakundeek diseinatu eta kudeatuko dituztenak, parte-hartzearen bidez eta epe ertain-luzeko estrategiekin.

19. Landa-eremuan enpresen ezarpena sustatu eta babestu, zerga-zaman hobariak emanik, premisa honi jarraiki: zenbat eta biztanle gutxiago, hobaria handiagoa.
20. Tokiko erakundeentzako laguntza-zerbitzua, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan kudea dezaten erosketa-zentralen eta erosketa kolektiboen arloan, energia eta autokontsumoarenean eta halakoetan, NUKF izanik horretarako balioko duen tresna.
21. Tokiko Erakundeen erabakitze- eta autogestio-ahalmenari zuzenean eragiten dien Administrazio Publikoak Arrazionalizatzeko Legea indargabetu dadila eskatu- Eskatu, halaber, indargabetu dadila Aurrekontuen Egonkortasunaren eta Jasangarritasun Finantzarioaren Legea, zorrari lehentasuna ematera behartu eta Tokiko Erakundeei beren superabita zertan gastatuko duten erabakitzeko ahalmena mugatzen diena.
22. Udalen ingurumen-politiketarako laguntza indartu. Klimaren eta energiaren aldeko alkate-paktuak sustatu eta babestu, eta bultzatu, udalen eremuan ere, GJHak (Garapen jasangarriko helburuak) erdiestea.
23. Tokiko erakundeek azpiegituren eta oinarritzko ekipamenduen arloan dituzten beharriak buruz kontu-ikuskapen fidagarria egin, barne hartuko duena kostuaren balorazioa, gerora berariazko Inbertsio Plan bat egiteko.
24. Herri eta udal bakoitzak izan behar dituen azpiegituren eta ekipamenduen zerrenda definitu, etorkizuneko inbertsio-egitasmoetan haien exekuzioa planifikatzeko.

Lehen Sektorea

25. Lehen sektoreari heldu eta sustatuko dugu. Sektorearen egituratzea, modernizatzea, ingurumen-jasangarritasuna, sektorearen profesionalizatzea. Belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen txertatzea.
26. Sektorearen egituratzea: Elkarteei, kooperatibei, ekoizle-antolakundeei, profesionalen arteko elkarteei... laguntzeko neurriak hartuko dira, eskaintzaren kontzentrazioa sustatzeko. Aldi berean, ekimen Kooperatiboak abiaraziko dira, landa-eremuetan ogibideari eustera bideratuak.

27. Trazabilitate Legea berrikusi, besteak beste elikadurarako produktuen kalitatea bermatzeko, eta gainera gure Jatorri Izendapenak eta Babespeko Geografia Adierazleak babestu eta sustatzeko. Kalitatezko produktuak sustatu berriazko izendapenen eta adierazleen bitartez, erkidegotik haratagoko eremuetan kalitatezko marken sorrera barne.
28. Ingurumen-jasangarritasuna: Ingurumen-arloko betebeharrak eta eskakizunak gainditu, ingurumena eta nekazaritza berradiskidetuz. Familia-nekazaritza jasangarriaren eredia bultzatu. Tamaina ertaineko abeltzaintza-ustiapeneko eredia defendatu, hura mantentzeko egokiak diren baldintza sanitario eta ekonomikoak bermatzeko lan eginez.
29. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa, ekoizpen bateratua eta merkaturatze-zirkuitu laburrak sustatzen jarraitu.
30. I+G+b programak: Nekazaritzarako aurrekontuak ikerkuntza-, esperimentazio- eta berrikuntza-programak finantzatu behar ditu, nekazaritzako elikagaien sektoreko esparru orotan, ura modu eraginkorrean erabiltzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, egokitzapen- eta arintze-neurrien bidez. Mahastizaintza eta enologia bultzatzen jarraitu EVENAren bitartez.
31. Ureztatze-eremuen Foru Plan berria sustatu, haien jasangarritasun ekonomikoa, eta ingurumenari loturikoa, ziurtatuko dituen, Uraren Esparru Zuzentarauaren gida-lerroak ezarriz kontsumo neurrikoak eta jasangarriak egite aldera. Gaur egun urezta daitezkeen eremuetan (Nafarroako Ubidean bereziki) hobekuntza- eta egonkortze-ekintzak finantzatu, ureztatze-iturriak dibertsifikatzeko eta, halaber, ureztatze-eremu tradizionalak modernizatzeko, sektoreari teknologia-transferentziaz baliatzea ahalbidetzeko eta landa-eremuan enplegua sortzen laguntzeko. Ureztatze-eremuetan energia berriztagarriak erabiltzea bultzatu.
32. Nafarroako nekazaritza-elkarteekin batera, defendatu, EBren aitzinean, NPB eredu berri bat, nekazaritza profesionalean, familia-ustiategietan eta landa-garapen jasangarrian oinarritua, eskubide historikoetan oinarritzen den gaur egungo eredia alboraturik. NPB sendo baten aldeko apustua, Bruselak 2021-2027 bitarterako mahai gainean jarri duen %5eko murrizketaren aurka. Nafarroako LGPn populazioaren ikuspegi sozialari, ingurumenari, belaunaldien arteko erreleboari eta emakumeen sarbideari eutsi irizpide gisa.
33. Basogintzako eragileen eta tokiko erakundeen inbertsioak sustatzen jarraitu, eta garatu Basozainak-en eredu berria. Nafarroako Baso Agenda garatu. Udaletako eta eskualdeetako basogintza-planak sustatu eta finantzatu.

34. Lantegi kolektiboak: Indarrean dagoen legedi aztertu lantegi kolektiboak sortzea ahalbidetzeko, landa-eremuan auto-enplegurako aukerak sortzen baitituzte.
35. Larre-zorua. Hondatutako larre-zorua berreskuratu eta berrosatu, bai nekazaritzakoak bai belardiak, agro-ekologiako ereduak bultzatuz.
36. Animalien babesaren eta ongizatearen aldeko ikuspegia txertatuko duten neurriak garatu eta jarduerak bermatu.
37. Nekazarien sektorea glifosatoa erabiltzeak osasunerako dakarren arriskuaz kontzientziatzeko programak ezarri.

3.13.- NAFARROA, HAREN AUTOGOBERNUA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Autogobernua

1. Hobekuntzan ezarritako eskuduntzen erabateko garapena bultzatuko dugu.
2. Estatuak transferitu gabeko eskuduntzen negoziazioa, horretarako beharrezkoak diren eskualdatzeak burutuz, eta bereziki:
 - Trafikoa eta bide-segurtasuna. Jadanik hitz emandako transferentzia gauzatzea.
 - Eta urtebeteko epean, Estatuarekin transferentziak gauzatu, honako eskuduntza hauek hartzeko:
 - Ikerkuntza zientifikoa eta teknikoa
 - Espetxe-osasungintza
3. Nafarroaren eta Estatuaren arteko Batzorde Misto berri bat sortzearen alde egiten dugu; Batzorde horrek bere gain hartu eta handitu egingo ditu gaur egungo Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen zereginak, koordinazio-lana eginez eta erakundeen arteko edozein gatazka gertatu aitzineko kontsultarako gune eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman ekonomiko-finantzarioak lantzeko eztabaida-gune bilakatuz.
4. Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren Legea aldatu eta, era berean, diru-ekarpena gaurkotu, hitzartutako zergetan autonomia

handiagoa erdiesteko eta zerga berriak ezartzeko Nafarroaren ahalmena babestu, Konstituzioa, LORAFNA eta Hitzarmenaren legea bera errespetaturik.

5. Foru Komunitateko berezko ikurrekin konpromiso irmoa izanen dugu.
6. Lankidetzaren Batzordearen barnean elkarrizketa sustatu, Nafarroako zenbait foru-legeren aurka Estatuko Gobernuak konstituzionaltasunik ezagatik jarritako helegiteen konponbiderako konpromisoaz eztabaidatze aldera.
7. Indarrean den konstituzio-esparruaren barnean LORAFNA eguneratzea aztertuko duen Txosten bat eratu Nafarroako Parlamentuan.

Erakundeen arteko lankidetzaren eta Europaren gobernantzan parte-hartzea

8. Alde biko eta lankidetzazko harremani bultzada, erakundeak eta indarrean dagoen legedia errespetatuz, mugakideak diren Autonomia Erkidego ororekin.
9. Euroeskualdea sustatu kulturaren eta ekonomiaren garapenerako motor gisa, eta parte hartzen jarraitu Nafarroa jadanik dagoen mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren organo europar orotan, hala nola Pirinioetako Lan Erkidegoa eta Europa Hegoaldeko Eskualdeen Biltzarra.
10. Nafarroak, gainerako autonomia-erkidegoekin batera, Estatuaren gobernatzean eta Espainiak Europan duen presentzian parte har dezala bultzatuko dugu.

Zentzu horretan, bultzatu egingen dugu Nafarroako Foru Ogasuna, Estatuko ordezkariaren barruan, Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaien Kontseiluan (ECOFIN) sar dadila, bereziki fiskalitate-politiken gaineko ikuskaritzari eta erabakiei, eta Europan zergak bateratzeko prozesuari dagokienez, Nafarroak arlo horretan duen berezko izaerari arreta emanik, egoera berean duen beste ogasun batzuk egiten ari diren bezala.

11. Europar Batasunarekiko harremanak bultzatuko ditugu, Bruselako Nafar Bulegoaren funtzioak eta garapena indartuz, eta aurrekontu egokia emanik Europako Ekintza Plana eguneratuz eta berrituz.
12. Europako Inbertsio Planak eskaintzen dituen aukerak baliatu Nafarroarako.

4.- KOORDINAZIO-, GARAPEN- ETA JARRAITZE-MEKANISMOAK

Legegintzaldi-programa hau sinatu duten antolakunde politikoek konpromisoa hartzen dute Parlamentuan garatuko duten jardura politiko-instituzionalean bakoitzaren

berezko izaera eta Akordio honen garapenak Ganbararen babesa lortzea ahalbidetzeko beharrezkoa izanen den jarduera koordinatua uztartzeko.

Antolakunde politiko sinatzaileek, Akordio hau babesten duten talde parlamentarioen bitartez, Foru Parlamentuan ordezkariak izan behar duten indar politiko ororen arteko elkarrizketa eta kontsentsua sustatzeko konpromisoa hartzen dute, horretarako beharrezkoak diren solasbideak irekiz. Beste indar politikoezko kontsentsu-formulak lortzeko prozesua bat abiaraziko da, horretarako beharrezkoak diren ekinbideak garatuz, egonkortasun politikoa eta instituzionala ahalbidetzeko.

Talde politiko sinatzaile bakoitzaren printzipio eta baloreen defentsa aldi berean funtzionamendurako Akordio hau eta legegintzaldi-programa errespetatuz egingen da.

Antolakunde politiko sinatzaileen arteko harremanaren ezaugarriek leialtasuna, elkarrizketa eta negoziatzearen eta adostasuna bilatzearen aldeko ahalegina izan beharko dute.

Egonkortasun instituzionala lortzeko beharrezkoa den koordinazioak ez du antolakunde bakoitzaren askatasuna murriztuko bere posizio politiko eta programatikoen arabera sustatu nahi dituen ikuspuntuak agertzeko, betiere aipatu printzipioak errespetatzen badira.

4.1.- JARRAITZE-ORGANOAK

Jarraitze-batzorde nagusia

Antolakunde politiko sinatzaileen Parlamentuko jarduera Akordio honen Jarraitze Batzordeak koordinatuko du; Batzordeko jardueraren printzipio nagusia kontsentsua izanen da.

Batzordea honakoek osatuko dute:

- Nafarroako Gobernuako Lehendakaria, Batzordeko presidentea izanen dena.
- Gehienez ere alderdi sinatzaile bakoitzeko hiru kide, ordezkariak izan behar duten Parlamentuan talde horren eledun-lana egiten duen pertsonak egon beharko duenak.
- Aztertu beharreko gaien arabera, aldez aurretik erabakitzen diren aholkulariak; ahotsa izanen dute, baina ez bozkatzeko aukera.

Batzordeak bi hilean behin egingen ditu ohiko bilerak, eta ez-ohikoak, berriz, hiru eguneko epean, sinatzaileetako batek hala eskatuz gero. Edonola ere Parlamentuko saioen hasieran bilduko da, baita gobernuaren aldaketa (programazko edo egiturazko) garrantzitsu bat ekar dezakeen edozein erabakiren aitzin ere.

Batzordearen zeregina izanen da akordio honen betekizun-maila ikuskatzea; haren interpretazioari dagozkion zalantzak argitzea; akordioa betetzeari buruz gobernuari eskatzen zaizkion azalpenak jasotzea; ondorengo egoerek eraginda beharrezkoak izan litezkeen akordioaren egokitzapenei buruzko balorazioa egitea; eta haren barneko antolakundearen arteko desadostasunak aztertzea eta konpontzea.

Erabakiak kontsentsuz hartzeko saiakera egingen da eta, ezin balitz, Parlamentuko Osoko Bilkuran talde politiko bakoitzak duen ordezkartza-maila hartuko da kontuan, ados ez dauden taldeen boza baldintzatu gabe.

Asteroko funtzionamendu-batzordea

Akordio hau izenpetu duten antolakunde politikoen ordezkariak batzorde batean bilduko dira, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren eta Eledunen Batzarren bileren aurretik

Batzorde horretako kide izanen dira, gutxienez, aipatu organoko partaide diren lau talde politikoetako ordezkariak, eta bertan eztabaidatuko dira han landuko diren gaiak, hartuko diren jarrerak erabakiz. Batzorde horretan Gobernuaren ordezkari batek parte hartu ahal izanen du.

Parlamentuko taldeek Gobernuarekin adostuko dute beren jarrera Parlamentuko lanen programazioaz, saioen egutegiaz, bilkura-saioen gai-ordenaren ezarpenaz, eztabaiden ordenatzeaz, eta idatziak, dokumentuak eta Eledunen Batzarrak azter lezakeen beste edozein gai kalifikatzeaz eta izapidetzerako onartzeaz Mahaiak hartutako akordioen berraztertzeaz.

Era berean, Mahaiaren eta Eledunen Batzarrean lau taldeek egingen dituzten adierazpen instituzional bateratuak adostuko dira, hala nola, posible den orotan, Parlamentuko beste taldeek aurkeztutako adierazpen instituzionalen aitzineko jarrera komuna.

Bilera horietan, asteko egutegian aurreikusitako parlamente-batzordeetako edukiak aztertuko dituzte lau indarrek, bai eta ere horietan landuko diren gaiekiko jarrerak,

akordioan jasotako gaiak direnean edo akordiotik kanpokoak izanik ere jokabide komuna komenigarria izan litekeenean.

Parlamentuko Lehendakariak Mahaiari Proposamenak eginen dizkion kasuetan, batzorde honek aztertu eginen ditu, haren edukia partekatzeko. Halaber, antolakunde eta entitateekin hartuko edo sinatuko diren konpromisoen berri emanen da.

Arloetako batzordeak

Nafarroako Gobernu berria behin funtzionatzen hasirik, haren egituran dauden departamentu adina arloko batzorde osatuko da. Arloetako batzordeek osatuko dute dagokion kontseilariak eta akordio hau sinatu duten indarretako bakoitzak gaiari dagokion parlamentu-batzordean duen eledunak.

Arloetako batzordeen zeregina izanen da Parlamentuaren egutegiaren arabera parlamentu-batzorde bakoitzean aztertuko diren gaien tratamendua, hala nola arlo bakoitzean Gobernuak dituen egitasmoen, planen, programen, ekimenen eta ekintzen jarraitzea egitea.

Bilera horiek dagozkien departamentuetan eginen dira, eta kontseilarien kabineteetako arduradunen zeregina izanen da deialdia egitea eta bilera bera antolatzea. Arloetako batzordeek beraiek erabakiko dute zenbateko maiztasunez bilduko diren eta, oro har, zer-nolako funtzionamendua izanen duten.

Lau indarren arloetako eledunek batzorde hauetan agertu ahal izanen dituzte bai beren taldeek bai Parlamentuko beste talde batzuek dagokion Departamentuari eskatutako informazioei buruzko zalantzak.

Talde horiek aukera izanen dute Jarraitze-batzorde nagusiaren hurrengo bilerarako gaiak proposatzeko, haren xedearekin bat datorren tratamendu politikoa behar duten gaiak baldin badira.

4.2.- PARLAMENTUAREN KOORDINAZIORAKO ARAUAK

Lege-proiektuak

Gobernuak bilkura-sasoi bakoitzaren hasieran jakinaraziko du aurreikusitako egutegia zein den.

Akordio hau sinatu duten parlamentuko taldeei Gobernuak bere egutegi legegilea osatzen duten lege-aurreproiektuak jakinaraziko dizkie gutxienez Gobernu Kontseiluari

aurkeztu baino astebete lehenago. Aipatu organoan aztertu aitzin, parlamentu-talde sinatzaileek testua adostu beharko dute, kontsentsu bidez.

Gobernuak eta talde parlamentario sinatzaileek elkarrekin aztertuko dute Gobernuaren lege-proiektuei zer zuzenketa aurkez dakiekeen, zeinekin egin daitekeen erdibideko hitzartzea edo zein erretiratuko den, hala nola banakako zer boto eman dakiekeen. Era berean, Parlamentuko beste taldeek aurkezten dituztenak onartzea edo, ez onartzekotan, horretarako arrazoiak zein diren aztertuko dute. Beharrezkoak diren informazio- eta harreman-mekanismoak dagokion arloko batzordearen bidez ezarriko dira.

Zuzenketa aurkeztea, eta Gobernuaren lege-proiektuarekiko jarrera alde aurretik adostuko dituzte akordio hau izenpetu duten talde parlamentarioek.

Gobernua maiz mintzatuko da talde parlamentario guztiekin, bere planteamenduen eta ekinbiderako proposamenen ekarpena ahal den heinean egiteko, akordioan ezarritakoarekiko koherenteak direnean betiere.

Parlamentuari jakinarazi beharreko Planak eta Programak

Gobernuak alde aurretik igorriko die, akordio hau sinatu duten talde parlamentarioei, osoko Bilkuran edo Batzordean aztertzeko Ganbarari jakinarazi beharreko planak eta programak. Beharrezkoa denean, dagokion arloko batzordea egingen da haiek azaltzeko. Aurkeztu aitzin, testua talde parlamentario sinatzaileekin adostu beharko da.

Parlamentuko taldeek eginiko Lege Proposamenak

Gobernuak aurreikusita dituen ekimen legegileen xede bereko lege-proposamenak egitea saihestuko da.

Gainerako kasuetan, ekimen legegilea egokitzat jotzen duen indar politikoak dagokion arloko batzordera eraman beharko du eta, behar izatekotan, Jarraitze Batzorde Nagusira, elkarrekin aurkeztu ahal izateko beharrezkoa izanen delarik haren inguruko aurretiazko kontsentsua. Akordiorik ezean, proposamena egin duen taldeak banaka aurkeztu ahal izanen du.

Beste talde parlamentarioek aurkeztutako lege-proposamenekiko jarrera erabakitzeko irizpidea desberdina izanen da proposamenaren gaia akordioan jasota badago ala ez badago. Lehen kasuan soilik, Gobernu Kontseiluak ezarriko du izan beharreko irizpidea,

zeina, edozein kasutan, alde zuzenetik talde parlamentario sinatzaileetako ordezkariekin eztabaidatu beharko baiten.

Gobernua kontrolatzeko ekimenak

Antolakunde politiko sinatzaileek askatasuna izanen dute Gobernuaren kontrolerako ekimenak gauzatzeko beren talde parlamentarioen bitartez, honako bideetatik: ahozko eta idatzizko galderak; informazio-eskaerak; gobernuko kideek agerraldia egiteko eskaerak; eta interpelazioak.

Kontrol-ekimenen xedea informazioa eta azalpenak eskatzea izanen da, bai akordio hau betetzearekin zerikusia duten gaiei buruz, bai hortik at dauden gaiei buruz.

Asteroko funtzionamendu-batzordeak aurkeztutako ekimenen baten zergatiaz eztabaidatu ahal izanen du, antolakunde politiko sinatzaileetakoren batek desegokitzat joko balitu, hala balegokio ekimena erretiratzeko aukera aztertu ahal izateko.

Gobernuak agerraldia egin ahal izanen du Parlamentuaren aitzinean bere eskumenekoak diren gaiez jarduteko, agerraldia baino lehen beharrezkoak diren informazioa eta dokumentazioa helarazi beharko dizkielarik antolakunde politiko sinatzaileei.

Edonola, jardunbide-printzipio gisa errespetatuko da Akordiotik at dauden taldeek Ganbararen Erregelamenduak ezarritako bitarteko oro erabiltzeko duten eskubidea, Gobernua kontrolatzeko jardun politikoa egite aldera.

Lan-saioak eta Parlamentura eginiko bisitak

Antolakunde politiko sinatzaileek askatasuna izanen dute beste kolektibo, elkarte eta entitateekin lan-saioak eskatzeko, baita bisitak ere. Gobernu-programako gaiekin zerikusia duten ekimenak direnean, elkarrekin erregistratzeko saiakera egingen da.

Adierazpen Instituzionalak eta mozioak

Lau indar politiko sinatzaileak saiatuko dira elkarrekin eginiko adierazpen instituzionalen edukiak kontsentsuz adosten, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak onartzeari begira. Elkarrekin eginiko adierazpenak erregistroa itxi baino lehen (ostegunean) adostuko beharko dira, jarrera komuna finkatzeko xedez indar guztien artean iritziak eta ikuspuntuak partekatuz.

Ez dira onartuko, Mahaian eta Eledunen Batzarrean aztertzeko, erregistroa ixteko eta saioa egiteko uneen artean gertaturiko gaiekin (benetako premia) zerikusirik ez duten beste indar politikoen adierazpenak.

Gainerako indar politikoen adierazpenekiko posizioak espresuki adostuko dira asteroko funtzionamendu-batzordean, ondoren egitekoa den Mahaiaren saioan eta Eledunen Batzarrean izan beharreko jarrera finkatuz. Batzordean ezin balitz posizio komunik adostu, indar politiko bakoitzaren arrazoiak azalduko dira, jarrera desberdinak justifikatzeko agertuko direnak.

Indar politiko sinatzaileetako batek ez balio jarraituko aurrez Eledunen Batzordean adostu den jarrera bati, Jarraitze Batzorde Nagusiak aztertuko du auzia.

Saiakera eginen da antolakunde politiko sinatzaileek mozioak landu ditzaten elkarrekin, Osoko Bilkuretan eta Batzordeetan izapidetzeko. Banaka aurkeztekotan, gainerako talde parlamentario sinatzaileei jakinaraziko zaie, guztien aldeko botoa lortzen saiatzeko xedez.

Izendapenak

Talde parlamentario sinatzaileak saiatuko dira Parlamentuak izendatu beharreko karguetarako hautagai-proposamenak elkarrekin adosten, posible den guztietan.

Aurrekontuak

Gobernuaren eta akordio hau sinatu duten talde parlamentarioen arteko berriazko prozedura bat ezarriko da, bai Nafarroako Aurrekontu Orokorren lanketa, bai haien izapidetze parlamentarioa egiten den bitartean izan beharreko jarrerak adosteko,

4.3.- BUKAERAKO KONPROMISOA

Akordio hau, sinatzaileen arteko kontsentsuz garatuko dena, oinarria izanen da Gobernuko Lehendakartzarako inbestidura-diskurtsoa osatzeko, gobernu-ekintza bera egikaritzeko, eta 2019-2023 legegintzaldian zehar lan legegilea eta araugilea bultzatzeko.

Akordio honen ondorioz, sinatzaileek konpromisoa agertzen dute María Chivite Navascués, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria izateko PSN-PSOEn hautagaiari, babesa emateko.

Iruñean, 2019ko uztailearen 26an

María Chivite Navascués

Gobernuko Lehendakaria izateko hautagaia

Partido Socialista de Navarra PSN-PSOE

Geroa Bai

Podemos-Ahal Dugu Navarra
Izquierda-Ezkerra

ERANSKINA

ELKARREKIN ADOSTUTAKO DESAKORDIOAK ETA AZTERTZEKE DAUDEN GAIAK

I.- Desakordioak

Hezkuntza:

- "Ez bereizi ikasleak ikastetxe bat baino gehiagotan hizkuntz ereduaren arabera", IEk eginiko proposamena, zeinarekin GEROA BAI ados ez dagoen
- "Hizkuntzen Tratamendu Bateratua sustatuko dugu Ikastetxeen Hezkuntza Proiektuaren (IHP) barnean", GEROA BAIk testuan gehitzeko eginiko proposamena, PSN-PSOEek onartu ez duena
- "Negoziazio kolektiboari begirunez, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Itunetan hartutako konpromisoak bete, bai hezkuntza publikoan bai itunpekoan", I-Ek ez du onartu Geroa Baik eginiko proposamen hori, itunpeko hezkuntza gehitzeagatik.

Osasun Politika

- "Osasun-arretaren unibertsaltasuna bermatu pertsona guztientzat, euren egoera administratiboa edozein dela ere" esaldiari dagokionez, PODEMOS AHAL

DUGUK eskatzen du espresuki adieraz dadila arreta hori publikoa eta doakoa dela.

- "Ahoko osasunerako estaldura publikoa handitu, errenta baxueneko herritar helduak gehituz", I-Ek eta PODEMOS-AHAL DUGUK eskatua, PSN eta GEROA BAI ados egon ez direlarik.

Enplegua eta aitzinabide ekonomikoa

- Ondorengo puntuetan, PODEMOS-AHAL DUGU aurka dago Gizarte Elkarrizketaren Kontseilua eta haren eskuduntzen garapena aipatzeagatik:
 - o Gizarte-elkarrizketa defendatzen dugu Nafarroako Foru Komunitateak garapen ekonomiko eta sozial orekatua lortzeko funtsezko elementu gisa, eta berau indartuko dugu haren sustapenerako politika eta baliabideak sortzearen bitartez.
 - o Nafarroako Gizarte Elkarrizketaren Kontseilua indartuko dugu, topaketarako, parte-hartzerako eta eragile sozial eta ekonomikoen eta Foru Administrazioaren arteko negoziazio instituzionalerako hiruko organo gisa, zeinean parte hartzeko gonbidapena eginen baitzairen KESen dauden sektore-arteko sindikatu- eta enpresa-arloetako antolakundeei.
 - o Nafarroarako Enplegu Plan berria sustatuko da, aurretik eragileekin adostua Gizarte Elkarrizketaren Kontseiluaren esparruan. Plan horren barnean, besteak beste, neurri bereziak jasoko dira 4.0 ekonomiaren erronkari aurre egiteko, jardunean dauden langileei formazioa emateko, landa-eremuan eta gazteen artean enplegua sustatzeko, aukera-berdintasunerako, genero-arrakala bukatzeko neurriak hartzeko, bizitza pertsonala, familiarra eta lana bateratzeko, laneko istripuen aurkako borrokarako, aitortu gabeko enpleguaren aurka neurriak hartzeko, ekintzailtza sustatzeko, eta abar.
- "Oso-osorik garatuko da 'Zientzia eta Teknologiaren 15/2018 Foru Legea'. Era berean, lege horretan aipatzen den Nafarroako I+G+b arloko inbertsioarekiko konpromisoa gainditzeko ahalegina eginen da, Europa 2030 exijentziaren gainetik jartzeko, I+G+b-n gailurrean dauden europar eskualdeekin parekatzen ahalegindurik", I-E aurka dagoen testua.

- Nafarroan Banku Publikoa sortzea, I-Ek eta PODEMOS-AHAL DUGUK proposatura. PSN eta GEROA BAI aurka daude, bigarrenaren kasuan banku publiko xehekaria egotearekin ados ez dagoelako.
- Goi-mailako ezaugarriak izanen dituen korridore nafarrari bultzada. I-E eta PODEMOS-AHAL DUGU ez dira bat etorri.

Fiskalitatea

- "Sozietateen Zerga aldatu. %28tik %35era handitu enpresa handientzako zerga-zama. Estatuko araudian existitzen ez diren onurak eta kenkari fiskalak ezabatu, eta enpresa handiei aurreko urteetako emaitza negatiboekin irabaziak konpentsatzeko aukera murriztu", I-Ek proposaturik.
- Sozietateen Zergan kenkariak ezartzeko aukera lortutako mozkinetatik Erreserbetara eramanen diren portzentajeei hertsiki loturik egotea, PODEMOS-AHAL DUGUK proposaturik.
- "Ezabatu enpresari lotuta dauden enpresa-ondareen gaineko zama, jarduera, inbertsioa eta enplegua sortzeko balio dutenak, eta familia-enpresen kasuan bereziki eragiten dutenak", I-E eta PODEMOS-AHAL DUGU ez daude ados.
- "2019 bukatu aitzin, PFEZri dagokion fiskalitateari buruzko araudiaren beste aldaketa bat sustatuko da, berriz ere salbuetsitako errenta gisa ager daitezen Gizarte Segurantzak amatasunagatik eta aitatasunagatik emandako sarietatik eratorritakoak. Oraindik baliogabetu ez diren ekitaldietan jasotako amatasun-eta aitatasun-errentei dagokienez, Foru Ogasunak tramite bat irekiko du zuzentze-eskaria egiteko, 2018ko urriaren 3ko Auzitegi Gorenaren 1462/2018 epaiak ezarritakoa interpretatuz. Epai horrek lege-doktrina gisa finkatzen du 'amatasunagatik Gizarte Segurantzatik jasotako diru-sari publikoak Pertsona Fisikoen Errenta Zergaz salbuetsita' daudela, segurtasun juridikoa bermatuta egotekotan betiere", PSN-PSOeren proposamena, GEROA BAI, I-E eta PODEMOS-AHAL DUGU ez daude ados.

Autogobernua

- "Hobekuntzan ezarritako eskuduntzen erabateko garapena bultzatuko dugu". Testua bere horretan mantentzen da baina I-E zuhur ageri da LORAFNAK jasotako Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaren eskuduntza hartzeari buruz.

- Estatuak transferitu gabeko eskuduntzen negoziatioari dagokionez, GEROA BAIk desadostasuna agertzen du "Beken eta ikasketetarako estatu-mailako laguntzen kudeaketa" eskuduntza hartzea ez gehitzeagatik.
- "Aztertu aukera martxan jartzeko finantza-tresna publiko bat, lurraldean errotua, gizartetik eta enpresetatik gertukoa, eta Foru Komunitatearen garapenarekin konpromisoa izanen duena", I-Ek onartu ez duen proposamena.

II.- Aztertzeke dauden gaiak

- "Norberaren zaintzapean dauden seme edo alaba bakoitzeko hileko 100 euroko diru-sari bat sortzeko urratsak egin. Hilero eta aldez aurretik jaso ahalko liratekeen desgrabatze fiskalen bidetik garatuko litzateke, eta familia orok jasoko lukete, gutxienez beherako sarrera izateagatik errenta-aitorpena egiteaz salbuetsita egonik ere. Despopulazio-arriskua duten eskualdeetan, edota zehaztu beharko litzatekeen atalase batetik beherako populazioa duten herrietan bizi diren familientzat ordainsari unibertsal hori handiagoa izateko aukera aztertu", I-Ek proposaturik.
- "Sozietate Zergaren %0,7 helburu sozialetarako inplementatu, eta Diru-laguntzen Foru Legea aldatu", PODEMOS AHAL DUGUK proposaturik.